

HERRITARREKIN GOBERNANTZA ETA LANKIDETZA INKLUSIBOAK: PARTAIDETZA EREDUA OSATZEKO GAKOEN BILA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. HERRI PARTAIDETZA GIPUZKOAN. NON GAUDE?	3
2.1.METODOLOGIA OHARRAK.....	3
2.2.GIPUZKOAKO HERRITARREN PARTE HARTZEA HAINBAT DATUTAN.	4
2.2.1.Aztikerreko datuak	5
2.2.2.Gipuzkoako Foru Aldundia	8
2.3.HERRI PARTAIDETZA INKLUSIBOAGO BATERANTZ. GOGOETAK ESPERIENTZIATIK	11
3. BI AZTERKETA KASU: ADINEKO EMAKUMEAK ETA HERRITAR MIGRATZAILEAK HERRI PARTAIDETZAREN EREMUAN	16
3.1.METODOLOGIA OHARRAK.....	16
3.2.ADINEKO EMAKUMEAK.....	18
3.2.1.Bizimoduak, ohiturak, eta herri partaidetzarekiko kokapena.....	18
3.2.2.Adineko emakumeak parte hartzeko garaian.....	21
3.3.HERRITAR MIGRATZAILEAK	25
3.3.1.Herritar migratzaileen eguneroko errealitatea eta herri partaidetzarekiko kokapena.....	25
3.3.2.Herritar migratzaileak partaidetza prozesuetan. Bizipenak.	29
4. INKLUSIORAKO GAKOAK ETA NORABIDE ZEHATZAK	32
4.1.GAKOAK.....	32
Begirada estrategikoa eta integratzailea. Herritarren ahotsa agendan eta diseinuan	32
Entzuketa, legitimazioa eta ahalduntzea.....	33
Deialdien norabidea irauli: <i>etorri-tik joan</i> -era jauzi egin	34
Berezko "egitura sozialetara" ere hurbildu	34
Gune zainduak, harreman zainduak.....	35
Komunikazioa egokituta, indibidualizatuta eta hurbiletik.....	36
Pertsona aliatuak eta konplizeak bilatu.....	36
Funtzionamendua egokitu	38
4.2.NORABIDE ZEHATZAK: LABURPEN TAULA.....	39

1.SARRERA

Azken hamarkada luzean, Gipuzkoan, instituzio maila eta eremu desberdinetan herritarren partaidetzarekin lotuta bultzatutako ekimenak ugariak izan dira. Tokiko politika publikoetako eremu desberdinetan, hainbat kanalen bidez eta subjektu zein eragile desberdinen ahotsak bildu dira, instituzioek hartu beharreko norabidea herritarrekin batera eta modu inklusibo eta partekatatu batean lantzeko.

Hala ere, herritarren partaidetzaren instituzionalizazio prozesua zein punturaino izan da integratzailea eta inklusiboa? Herritar asko eta ezberdinak politika publikoen hartzaile zein subjektu aktiboa izatea helburua izanik, zeintzuk dira gaur egungo gizartean gehienengana iritsi ahal izateko identifikatzen diren erronkak? Nork parte hartzen du aktiboki politika publikoen eta herritarren arteko interakzio guneetan? Nork ez? Zeintzuk dira administrazio publikoak gainditu behar dituen mugak herritar ezberdinekin konektatzeko partaidetza dinamikei dagokienez?

Herri partaidetzan eremuan pilatutako lan esperientziak agerian jartzen du egun indarrean dagoen partaidetza ereduan, eta herritarren inplikazioari dagokionez, hutsune eta desoreka nabarmenak direla. Horietan sakontzea da lan honen helburu nagusia. Horrekin batera, partaidetza eredu eta sistema anitzagorantz joateko zabaldu behar diren bide eta landu beharreko izaera aukeraz proposamenak egitea ere lanaren xede dira.

Lan hau Gipuzkoako gobernantzaren aldaketaren markoan kokatzen da, beraz, politika publikoak lankidetzaren paradigmatik egiteaz ari gara, eredu berri honek dakarren ziurgabetasuna onartuta. Honetan, oso garrantzitsua da azpimarratzea hemen proposatzen diren urratsak administrazioaren dimentsio politikoan zein teknikoan garatu behar direla. Planteatutakoa barne mailako lanketa bat da, instituzio mailan egin behar dena, eta instituzioaren ardura da eraldaketa horren lidergoa hartzeko baliabideak izendatzea.

Azkenik, datozen orriotan lantzen den *inklusioa* kontzeptua mugatze aldera, partaidetza eta lankidetzaren publiko-komunitarioaren testuinguruan *urrun daudenei tokia egin eta hurbildu* bezala ulertzen da. Era berean, urruntasun hori aztertzeko jatorria, generoa eta adina aldagai erreferentzial moduan hartzen dira, baina ulertuta ere, gizarte honetan aniztasuna eta desberdintasuna sortzen dituzten elementuak dimentsio askoz gehiago aurkitzen direla, eta beraz, *inklusioa* kontzeptua gehiago lantzeko beharra dago.

2.HERRI PARTAIDETZA GIPUZKOAN. NON GAUDE?

2.1. METODOLOGIA OHARRAK

Orain arte Gipuzkoako instituzioetan bultzatutako herri partaidetzaren argazki bat ateratzea da atal honen helburua. Horretarako, udal zein foru mailan abiatutako prozesuetara hurbilpen bat egin da, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartuz. Fase honetan erabilitako metodologiak hiru izan dira:

Dokumentazio lana: partaidetzaren eremuarekin lotutako eztabaidak eta hausnarketak identifikatzeko, baita ikuspegi komunitarioaren inguruko planteamenduak aztertzeko ere, dokumentazio lan bat abiatu da. Beharrezkoa den kasuetan, hurrengo ataletan garatutako informazioaren iturria aipatzen da.

Partaidetza datuen ustiaketa kuantitatiboa: 2.2. atalean hainbat partaidetza daturen ustiaketa estatistikoaren emaitzak aurkezten dira. Horien bidez, azken urteetan partaidetza eremuan bultzatutako prozesuen ezaugarri batzuk marraztu nahi izan dira.

Azterketa kuantitatiboa abiatzeko, alde batetik, 2020 urtetik hona Aztiker Soziologia Ikerguneak bideratutako prozesuetan sortutako lan dokumentuak bildu dira. Lagin selektibo horrek sektorean diharduen aholkularitza baten kasu-azterketa egitea ahalbidetzen du, hainbat susmo eta hipotesi aukera datuetan joera ote duten aztertzeko. Beste aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundian 2020 urtean udal mailan sustatutako prozeduren inguruan argitaratutako memoria ere baliatu da azterketarako. Beraz, aipatutako bi iturriak baliatu dira hurrengo aldagaiak aztertzeko:

- Partaidetza prozesuak abiatu diren kudeaketa arloak.
- Prozesuetan erabilitako partaidetza formak edo mekanismoak
- Partaide kopurua
- Partaideen generoa

Aholkularitzetako arduradunekin elkarrizketak: Gipuzkoako partaidetzaren eremuaren azterketari begirada kualitatiboa txertatzeko, eremu horretan aholkularitzan diharduten hainbat pertsonekin elkarrizketa sakonak egin dira. Horien bidez, profesionalen esperientziak eta hausnarketak jaso dira Gipuzkoan partaidetza eremuan egindako ibilbidearen hutsuneak eta aurrera begirako erronkak arakatzeko.

Kasu honetan, 3 elkarrizketa egin dira:

	Enpresa izena	Partaideak
1	Aztiker Soziologia Ikergunea	2 partaidetza teknikari
2	Elhuyar Aholkularitza	Partaidetza teknikari 1
3	Prometea S.C	2 partaidetza teknikari

2.2. GIPUZKOAKO HERRITARREN PARTE HARTZEA HAINBAT DATUTAN.

Gipuzkoako herritarren partaidetzaren eremuan egindako lana modu kuantitatibo batean aztertzea proposatzen da atal honetan. Begirada kualitatiboaz gain, partaidetzaren eremuan egindako lanaren inguruko zenbaki zehatzei erreparatzeak gako batzuk eman digu lan honetan landutako eztabaida eta hausnarketak testuinguruan jartzeko, eta batez ere, herritarren partaidetza zertan, nola eta norekin gauzatu den sakonago aztertzeko. Era berean, datuek agerian uzten dute azken urteetan, aldundi zein udal mailan, herritarren partaidetza bideratzeko mekanismo eta forma batzuk finkatu eta sistematizatu direla; beraz, hauek inklusioaren eta aniztasunaren ikuspegitik aztertzea baliagarria izango da, lortu nahi den askotariko partaidetza eredia gertatzen ari ote den ondorioztatzeko.

Oso garrantzitsua da azpimarratzea, jarraian lantzen diren datuak datu solte gisa ulertu behar direla. Izan ere, soilik baliagarriak izan dira ikerketa honetan aztertzeko xede izan diren iritziek eta diskurtsoek lotura kuantitatiboa ote zuten edo izan ote zezaketeen aztertzeko. Aldi berean, ez dira aurrez diseinatutako adierazle sistema baten parte, eta soilik ikerketa honen kokapena eta diseinu erabakiak hartzeari begira landu dira. Beraz, lehen pausoa izan nahi dute etorkizunean partaidetza datuen sistematizaziorako balizko tresnaren beharra identifikatze aldera. Beste modu batean esanda, epe ertain-luzean eta modu sistematikoan bilduz gero, Gipuzkoako herritarren partaidetzaren inguruko datuek argazki zehatzago bat emango digute, eta ondorioz, baita irakurketa eta hobekuntza eraginkorragoak ateratzeko aukera ere.

Ondorengo datuek hiru galdera zehatzi erantzuten diete:

- Politika publikoetako zein gaitan edo lan arlotan bideratu dira partaidetza prozesuak eta dinamikak?
- Zein mekanismo eta tekniken bidez gauzatu dira partaidetza prozesuak?
- Nork parte hartu du prozesuetan?

Aurreko guztia kontuan hartuta, atal honetan, bi datu mota desberdinen ustiaketa aurkezten da:

- 2020-2022 epean Aztiker Soziologia Ikergunetik bideratu diren partaidetza prozesu desberdinetako datu nagusiak.
- 2020. urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak udal mailan sustatutako proiektuetan bildutako datuak.

Horrela, aurrez aipatu bezala, soilik horri dagozkie datuen emaitzak eta ez dute beste ezer adierazten. Alegia, ez gara ari Gipuzkoarako ordezgarritasuna duten datuez, nolabaiteko epe berean gertatutako hainbat datuez besterik.

2.2.1. Aztiker Ikerguneko datuak

2020-2022 epemugan, Gipuzkoan Aztikerrek udal eta auzo mailan gidatutako prozesuak 23 izan dira. Horietan zehar, honelako lanketa eta dinamikak gauzatu dira:


LANKETA/DINAMIKA	DEFINIZIOA
Saio Irekia	Edozein herritarrari zabalik dagoen saioa, deialdi orokorren bidez deituta. Publiko orokorra du hartzaile potentziala. Bertan, gai edo proiektu zehatz baten inguruko informazioa ematen da, eta partaideek haien balorazioak, kezkek eta ekarpenak egiten dituzte afera edo proiektuaren inguruan.
Elkarrizketak	Banaka edo talde txikietan gertatzen den elkarrizketa gidatua. Normalean, aurrez definitutako profilekin egiten dira, eta horiek kontaktatu eta hitzartzen dira. Informazio kualitatiboa biltzeko oso baliagarriak den teknika da, bai gai batean sakontzeko eta ulertu ahal izateko zerk eragiten duen, bai eraldaketari begirako gakoak antzemateko.
Ausaz hautatutako herritarren lan taldeak	Hainbat irizpide eta aldagaien baitan, eta normalean maila soziodemografikoan profiletan ordezkagarritasuna lortzeko helburuarekin osatzen diren lan taldeak, proiektu edo lanketa zehatz baterako, edota epealdi zehatz batean eginkizun zehatz baterako. Lan talde hauek landu nahi denaren baitan aldagai zehatzekin desoreka daitezke. Beraz, egitura itxiak eta izendatuak dira, eta eginkizuna zehatza dute, programa zehatzarekin, edota modu iraunkorrean gertatzen dira ere, eta kasu horretan epealdi muga baterako osatzen dira partaideak.
Bilerak	Partaide ezberdinez osatutako elkarrekintza. Partaide horiek zehazki deituak dira elkarrekintza horretarako, hots kontzertatua da, eta eginkizun zehatz baterako izaten da (gai baten lanketa, ekintza baten prestaketa, definizioen bat lantzeko...). Partaideak egitura beraren parte izan daitezke, edota egitura eta posizio ezberdinetakoak.
Galdetegiak	Gai, afera, arlo edo proiektu zehatz baten inguruan egituratzen den galdera sorta. Hartzaile zehatzak eta izendatuak izan ditzake, edota herritar denei irekia izan daiteke. Normalean, iritzien eta joeren pisua antzemateko edo sumatzeko erabiltzen dira prozesuetan, eta baita ere herritarrak lanketan nola eta zein begiradekin kokatzen diren antzemateko. Horrez gain, zerbait zehatzaren baitan posizionamendua jasotzeko ere erabiltzen dira.
Batzar/saio mistoak	Saioen definizio bera duen gunea eta egitura, baina kasu honetan, deialdia bi moduetan egiten da (edo modu batean baino gehiagotan): <ul style="list-style-type: none"> - Herritar eta publiko orokorrari irekiak. - Herritar, eragile eta kolektibo zehatzei deituta. Mistoaren adieran jasotzen da ere partaideen kokapen eta begirada anitza lanketarekiko. Hau da, saio horretan lana egin dezakete ardura teknikoa duten pertsonak herritarrekin, edota ordezkaritza politikoa duten pertsonak herriko eragileekin, e.a. Bakoitzaren posizioa ezberdina izan daitekeela aurreikusten da, eta kokapen ezberdinen arteko elkarrizketa gertatzea du helburu.
Tailerrak	Gidatutako ariketa da, non alde batetik lanketaren azterketa egiten den, eta bestetik talde sorkuntza lana egiten den, gai edo proiektu zehatzaren baitan. Partaideak deituak izan daitezke, orokorrean deituak edota mistoak, eta alde zehatzetik izena eman behar da, aurrez jakiteko partaidetza ezaugarriak zeintzuk diren, eta horren arabera prestatzen da.
Jardunaldiak	Bi ordutik gorako denborarako deitzen den lanketa da. Egun erdikoa, egun betekoa edo egun batzuetakoa izan daiteke. Gai, proiektu edota afera zehatza lantzeko izaten da, eta normalean parte bat informazioa jasotzeko erabiltzen da, maila teorikoan edo esperientzian gaia kokatzeko ere, eta partaideen arteko interakziorako eta sorkuntzarako tartea ere izaten da.

Kaleko postuak	Kalean bi eginkizunetarako jartzen diren mahaiaik edo postuak: informatzeko, eta herritar indibidualen balorazioak, iritziak, kontraste arinak jasotzeko. Gai, proiektu edo arlo zehatz bati lotuta egiten dira, eta horren difusioa egiteko baliagarriak dira, eta baita horren baitan iritziak eta posizionamenduak biltzeko ere. Kasu honetan ez da bilatzen taldean lanketarik, baizik eta hedapena pertsona indibidualen artean
-----------------------	---

Aurrekoan deskribatutako prozesuak udal kudeaketaren arlo ugarian txertatu dira; hala ere, datuek erakusten dute hirigintza arloak (%21,7) eta udalarekin komunikazio prozesuek (%13) presentzia handiagoa izan dutela aztertutako sasoiari. Neurri txikiago batean, berdintasunaren arloan (emakumeen etxeak, genero ikuspegitik bideratutako prozesuak...), ordenantzak berritzeko edo sortzeko prozesuak eta udal ekipamenduen inguruko prozesuak ere errepikatua izan dira.


Hori da atera daitekeen beste hausnarketa edo irakurketa bat: zergatik nagusitzen dira gai batzuk besteak baino?

Aztikerreko parte-hartze prozesuak, gaiaren arabera, 2020-2022



Aztikerreko prozesuetan martxan jarri diren partaidetza formen artean 10 mota desberdin identifikatzen dira. Datu orokorreari erreparatuta, azpimarratu behar da aztertutako epealdian herritarren partaidetzarako mekanismo indibidualak (galdetegiak eta elkarrizketak) zein kolektiboak (ausazko taldeak, batzarrak...) aktibatu direla. Arlo guztiak kontuan hartuta, gehien errepikatzen diren ekintzak saio irekiak eta elkarrizketak dira (57 eta 31 deialdi hurrenez hurren).


Aztikerreko parte-hartze proiektuak, gaia eta mekanismo motaren arabera, 2020-2022



Hala ere, udalerrietan gidatutako ekintzak aztertzeko garaian, garrantzitsua da erreparatzea zein den parte-hartzaile kopurua ekintza bakoitzeko.

Aztertutako epealdian (2020-2022), Aztikerrek Gipuzkoan eta udal mailan gidatutako prozesuetan 4.348 herritarrek parte-hartu zuten. Hauen artean, %43,2k indibidualki parte hartu zuten haien iritziak eta balorazioak emateko (galdetegiaren bidez parte hartu zuten). Galdetegiez gain, saio irekiek partaideen %30,2 bildu zuten. Azkenik, azpimarratzekoa da ere kalean informazio banatzeko postuek 500 herritar baino gehiagoren ekarpena jaso dutela; hau da, Aztikerreko prozesuetako partaideen %12.


Partaide kopurua partaidetza formaren arabera. Aztikerreko prozesuak, 2020-2022



Egun dauden datuak baliatu ditzakegu partaidetza prozesu desberdinetan parte hartu duten profilak genero ikuspegitik aztertzeko. Zentzu honetan, oro har, Aztikerrek gidatutako prozesuetan emakumeen pisua gizonena baino apur bat handiagoa da.

Generoaren arabera partaidetza udal kudeaketaren eremu desberdinekin gurutzatzen badugu, desoreka batzuk identifikatzen dira. 2020-2022 periodoan Aztikerrek gidatutako prozesuetan gai guztietan emakumeen eta gizonen presentzia parekatu xamar dagoen arren, hirigintzarekin lotutako ekintzetan gizonen partaidetza emakumeena baino nabarmen handiagoa da (genero datuak jaso diren kasu guztiak kontuan hartuta). Beste aldetik, hezkuntza eremuan gidatutako prozesuan ere genero aldetik desberdintasunak eman ziren. Kasu honetan, emakumeen partaidetza handiagoa izan zen.

Partaideen generoa, Aztiker, 2020-2022




2.2.2. Gipuzkoako Foru Aldundia

2020an zehar Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) udal mailan 22 prozesu sustatu zituen. Prozesu horien ezaugarri nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako "Gipuzkoako Herritarren Partaidetza, 2020-2021" gidan biltzen dira. Jarraian agertzen den informazioa gida horren datuen ustiaketa estatistikoaren emaitzak dira.


GFAREN sustapenaren markoan burutu ziren parte-hartze prozesuen artean, hirigintza, parte hartzearen inguruko hausnarketa prozesuak, eta plan estrategikoak dira gehien errepikatu ziren gaiak. Azpimarratzekoa da hirigintzaren inguruko nagusia dela Aztikerren datuen emaitzetan zein GFAREN gidan. Horrek orain arte egindako lanaz hausnartzeko gako bat ematen du, izan ere, agerian jartzen du gai batzuk besteen gainetik nagusitu direla. Aurrerago ikusiko dugun bezala, beste gai eta erabaki mota batzuk ez dira kokatu herritarrekin partaidetzaren dimentsioan.

GFAk sustatutako parte-hartze prozesuak, gaiaren arabera, 2020




Partaidetza datuei dagokienez, guztira, GFAk 2020an zehar sustatutako prozesuetan 1.680 herritar kontabilizatu ziren partaide moduan. Parte-hartzaileen generoa jasota dauden datuak kontuan hartuta, emakumeen presentzia gizonena baino nabarmen altuagoa izan zen, %57 eta %39 hurrenez hurren.

Partaideen generoa, GFA, 2020



Generoen inguruko datuak sakonago aztertuta, aurrekontuekin lotutako prozesuetan partaideen generoen arteko desberdintasunik nabarmenena aurkitzen da. Bertan, emakumeen partaidetza gizonena baino altuagoa da. Nahiz eta oso parekatuta egon, garraioa ("Beasaingo mugikortasun mahaia") eta etxebizitza gai zentralak diren prozesuetan ("Amezketako udalerrian etxebizitzaren beharrak zehazteko prozesu partehartzailea"), gizonen presentzia apur bat altuagoa da. Beste aldetik, "Usurbilgo Emakumeen Etxeari buruzko prozesu partehartzailea"-n ia prozesu ez-misto bat burutu zen.

GFAk sustatutako parte prozesuetan parte hartu duten pertsona kopurua, gaiaren eta generoaren arabera, 2020



Honaino saiatu gara azken urteetan Aztikerren zein GFAn gidatutako prozesuen partaidetzaren inguruan datu zehatz batzuk aztertzen. Zehazki, parte-hartzaileen kopurua eta generoa, partaidetza gaiak eta formak izan dira begirada estatistiko baten bidez aztertu diren aldagaiak. Beraz, esan dezakegu bildutako datuek aztertutako prozesuen errealitate zehaztetara hurbilpen bat egitea ahalbidetu digutela, eta neurri txikiago batean, horretatik irakurketa eta fenomeno globalak identifikatzea. Hala ere, azterketa horrek bere oinarrian muga batzuk planteatu ditu. Ustiaketa estatistikoa ez da abiatu datu bilketa sistematizatu eta bateratu baten planteamendutik; hau da, oinarriko datuak memoria deskribatzaileak osatzeko jaso dira, eta ez ustiaketa estatistikoari begira; ondorioz, zailtasunak izan ditugu prozesu batzuetan partaideen inguruko zenbaki zehatzak isolatzeko eta horiek taula bateratu batera eramateko. Era berean, gaiak eta partaidetza forma berdinak deskribatzeko izenburu eta sailkapen desberdinak erabiltzen direla azpimarratu behar da. Beraz, Aztikerren zein GFAk sustatutako udal prozesuetan, lan dinamika eta partaidetza forma antzekoez ari gara, baina datuak sortzeko prozesuak ez du horien azterketa bateratua egitea ahalbidetu.

Beste alde batetik, lan honetan aurkeztutako datuen azterketak soilik lau aldagai baliatu ahal izan ditu. Muga horrek agerian uzten du Gipuzkoako partaidetza eredia hobetze aldera, lagunduko ligukeela burututako prozesuetan beste datu batzuk biltzea, hala nola partaideen inguruko datuak, prozesuen iraupena, emaitzen ezaugarriak eta inplementazioa, partaidetza espazioak edo prozesuen datu ekonomikoak besteak beste. Hori guztia kontuan hartuta, Gipuzkoako herri partaidetza bultzatzen dituen erakunde desberdinek prozesuen inguruko datu bilketa modu sistematikoan eta bateratuan garatzea hurrengo ekarpen handia izan daiteke. Modu horretan, Gipuzkoako herritarren partaidetza argazki orokor batetik abiatuta, ebaluazioak sakonagoak eta sendoagoak izango dira, eta aurrera begirako hobekuntzak eta erronkak planteatu ahalko dira.

2.3. HERRI PARTAIDETZA INKLUSIBOAGO BATERANTZ. GOGOETAK ESPERIENTZIATIK

2.1. atalean zehazten den bezala, proiektu honen landa lanean hainbat elkarrizketa egin dira Gipuzkoako herri partaidetzaren eremuan diharduten hiru aholkularitza desberdinetako profesionalen hausnarketak biltzeko. Aldi berean, dokumentazio biltzeko prozesu bat egin da, Gipuzkoako herri partaidetza sistemaren inguruko kokapen teorikoa eta kritikoa planteatzen duen literaturari erreparatuta lan hau aberasteko.

Atal honetan, aipatutako bi informazio iturriak baliatu dira egun Gipuzkoako herri partaidetza sistemaren ingururen inguruan gogoeta nagusiak identifikatzeko. Segidan aurkezten dira.

Herritarren partaidetza eta komunitate ikuspegia

Hamarkada luze baten ondoren, egun herritarren partaidetza bi ekintza marko nagusiren aurrean kokatzen da:

- Alde batetik, Gipuzkoan partaidetza eta tokiko politika publikoen garapena lankidetzazko gobernantzaren eskemetara eraman da; hau da, gaur egun politika publikoak ko-produzitzeaz ari gara, lankidetzazko publiko komunitarioa eta helburu partekatua erdigunean jarri. Beraz, ekintza-marko berri bat ireki da, non herritarren eta erakunde publikoen arteko harremana ulertzea eta ahalbidetzeko moduak eraldatzea ezinbestekoa den. Bide honetan, instituzioek boterea eta erantzukizunak partekatuzko guneak ireki beharko dituzte, eta herritarrekin ekiteko garaian hornitzaile-konsumitzaile logika gainditu beharko dute. Azken finean, helburua da komunitatea osatzen duten norbanakoak eta beste eragileak lankidetzazko politika publikoaren diseinua eta garapenean txertatzea.
- Beste alde batetik, tokiko politika publikoak ko-diseinatzeko eta aurrera eramateko printzipioek ikuspegi komunitarioa biratu dute. Ikuspegi komunitarioak herritarren arteko interakzioa eta bizitza kolektiboa ekintza publikoaren erdigunean jartzen du. Zentzu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak¹ proposatutako definizioa baliatuko dugu ikuspegi komunitarioa deskribatzeko:

"Politika publikoetako ikuspegi komunitarioaz ari garenean herritarren protagonismoa bilatzen duten ekintza/erantzun kolektiboez ari gara, estrategia edo erantzun indibidual edo indibidualizatzaile hutsen aurrean. Ikuspegi indibidualizatzaileak sektore bakoitzari bere eskumena proposatzen dio, eta pertsona bakoitzari bere zerbitzua edo prestazioa. Ikuspegi komunitarioak bilatzen eta sustatzen du jendeak harremanak izan eta loturak eraikitzeke duen gaitasuna, elkarrekin haien bizitzak hobetzeko baliagarriak diren gauzak egin ditzaten." (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022:8)

¹ Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022, "Ekintza komunitarioa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa".
https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/27303951/Ekintza_Komunitarioa_MARKOA_eu.pdf/db70c9ef-50af-f933-25ef-d6c9ea660e9e?t=166737688859

Beraz, elkar osagarriak diren bi ikuspegi dira aurrean ditugunak, eta bide berdinean aurki ditzakegu; izan ere, ikuspegi komunitarioaren zein gobernantzaren eraldaketaren garapenean kalitate demokratikoa indartzeko oinarriak aurkituko ditugu.

"Ekintza komunitarioa eta herritarren partaidetza txanpon beraren bi aldeak izango balira bezala ikus daitezke: kalitate demokratikoa hobetzea bilatzen dute biek ala biek. Biek ala biek lotura indibidual eta kolektiboarekin dute zerikusia." (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022:10)

Norabide honetan pausoak eman diren arren, lankidetzaren publiko-komunitarioan eredu idealetik oso urrun gaudela onartu behar da. Lankidetzaren publiko-komunitarioaren filosofia eta begirada barneratzeko eta sendotzeko, oraindik kontrako inertzia batzuei aurre egin beharko zaie, erakunde barnean zein kanpoan.

Alde batetik, sistema liberalaren barnean finkatuta dauden balio eta joera batzuek ikuspegi komunitarioak eskatzen dituen dinamikekin talka egiten dute. Horrela, batzuk aipatzearen, egun aktibo dauden indibidualismoa, lehia edo kontsumo harremanen logika gainditzea komeni da, ikuspegi komunitarioak eskatzen duten enpatia, zaintza jarrera edo besteari lekua egitea bermatu nahi badugu.

Aurreko ideiarekin lotuta, gaur egungo gizartearen ezaugarri berberak interes kolektiboa ia ezinezko egiten dute. Herritarren partaidetzak balio dezake komunitatea sortzeko, baina horretarako talde izaera eta ikuspegi kolektiboa duen gizarte bat behar da beste aldean. Era berean, komunitatea eta talde bizitzarekin, kolektiboarekin konpromisoa hartzeak gizartearen dagoen aniztasuna aintzat hartzea eskatzen du.

Hori guztia kontuan hartuta, sistemak dituen gabeziak eta inertzia negatiboak erdigunean jarri, euren inplikazioak aztertu, eta *lankidetzaren* eta *komunitatearen* ikuspegira hurbiltzeko pauso txikiak txertatzea izan daiteke gakoa.

Partaidetzaren esanahia zabaldu

Lan honetan lantzen diren partaidetza prozesuek soilik *herritarren partaidetza* kontzeptuaren dimentsio txiki bati erreparatzen diote. Politika publikoen diseinuan eta zehaztapenean txertatu zenetik, instituzioek sustatutako praxiak *partaidetza* ideia bakarrera eramanez; izan ere, neurri handi batean, partaidetza ideia hori unibertsalizatu eta neutralizatu egin da, soilik aukera edo errepresentazio posible bat dela albo batean utzita. Aldi berean, ideia honen barruan bi dimentsio daude, segidan aipatzen ditugunak:

- Partaidetza instituzionalak parte hartzeko "libreak" diren herritarrak proiektatzen ditu, gizartearen "dominazio" logiketan erreparatu gabe. Alabaina, generoa, jatorria, adina, klasea, ikasketa maila eta beste egitura batzuek eragin handia dute partaidetza dinamika eta prozesuetan.
- Partaidetza instituzionalak gizartearen baitan dauden errealitate anitzak albo batean utzi eta esperientzia eta unibertso partekatutako bat duten herritarrak iradokitzen ditu².

² Martínez-Palacios, J. (2018). ¿ Qué significa participar? Reflexiones sobre la construcción de las imágenes de la participación. *Papers. Revista de Sociología*, 103(3), 367-393.

Bi dimentsio hauek aintzat hartzea ezinbesteko pausoa da lan honetan; izan ere, ikerketa honek herritarren partaidetza inklusioaren ikuspegitik nola landu aztertu nahi du, eta horrek kontzeptu bera kolokan jartzera eramaten gaitu. Laburtzeko, noizbait definizio zabala eta inklusiboagorantz abiatu nahi bada, partaidetza ulertzeko modu bera berrikusi beharko litzateke, hau da, parte hartzea "gure gizartearen eraikuntza kolektiboan eragiten duen edozein jarduera, ekintza eta erabakia" bezala ulertuta³.

Ondorioz, hainbat gai edo politika zehatzen iritzia, begirada, balorazioa edo proposamena egiteaz gain, gizarte egituratuagorantz, komunitarioagorantz eraman gaitzakeen eredia sustatzeaz ere ari gara. Are gehiago, ekintza kolektiboak indartzeaz eta errazteaz ari gara, baita ekintza kolektiboarekiko aktibazioa sustatzeaz ere: elikadura bankurako materiala jasotzen duten bizilaguna, festetan txokolatea banatzeko prest dagoen laguna...askoren artean.

Partaidetza norekin eta zertarako?

Gipuzkoako tokiko instituzioen ibilbidea aztertuta, maiz partaidetza prozesuak gaiaren inguruan tentsio bat identifikatzen denean aktibatzen direla sumatzen da. Labur esanda, herritarren partaidetza prozesu ugari irekitzen dira instituzioek hartu beharreko norabidea argi ez dagoenean. Testuinguru honetan administratibotik bultzatzen den herritarren partaidetzak berreste-prozesuetatik haratago joateko zailtasunak ditu.

Era berean, tentsioa sortzen duten gaiak lantzeko momentuan profil batzuk desaktibatzen dira berehala, interpelatuta sentitzen ez diren profilak hain justu. Partaidetza prozesuetan neurri inklusiboagoak hartzeaz hitz egiten badugu, prozesura "indiferenteak" ekartzea mahai gainean jarri beharko da, herritar horiek ere ekarpen bat egin dezaketelako. Ikuspegi komunitariotik abiatzen bagara, ez dugu ahaztu behar "indiferenteak" ere komunitate direla.

Bestalde, azken urteetan herri partaidetza politika publikoen eremu zehatz batzuetara bideratzeko joera argi bat identifikatzen da, beste gai batzuk albo batean utzita. Honen harira, azpimarratzekoa da sistema publiko berak erabaki estrategikoak hartu behar dituen arren, herri partaidetza ez dela bereziki aktibatzen eremu estrategikoetan. Gaur egun partaidetzaren bidez kiroldegi baten berrikuntza nolakoa egin erabakitzen da, baina ez kiroldegia berrikuntza den edo ez; hau da, erabaki estrategikoetan ez da horrenbeste partaidetza sustatzen, batez ere exekuzioan.

Bukatzeko, partaidetza prozesuek oinarrian duten ideia instituzioen ekintzan seguritate bat bermatzea da. Hau da, partaidetza prozesuak legitimitatea lortze aldera abiatzen dira, hartutako erabakia ahalik eta ahots gehienekin kontrastatzeko, eta ondorioz egungo ziurgabetasunaren aurrean, esku-hartze publikoa modu egokiago batean ziurragoan egiteko. Horren aurrean, herritarren partaidetzak instrumentala izatetik haratago joan nahi badu, begirada estrategikoa hartzea beharrezkoa da, eta benetan baliatu ekintza publikoa bideratzeko, bere hastapenetatik, modu kolektiboan eta inklusiboan gobernatzeko.

³ Definizio hori Bartzelonan 1997ko *I Congreso de Dones*-en proposatu zen, eta jasota gelditzen da hemen: Hernández, J.M (2015) "Hacia una cartografía de la participación invisible. Proyectando mapas para la participación local de las mujeres", *¿Tiene género la participación? Rompiendo barreras en la participación de las mujeres* txostenean publikatuta, ALBOAN. <https://www.alboan.org/es/multimedia/publicaciones/investigaciones/tiene-genero-la-participacion-rompiendo-barreras-en-la>

Berrikuntza eta irudimena

Orain dela hamarkada luze bat partaidetza paradigma Gipuzkoan lantzen hasi zenetik, gehienbat herritarren partaidetza tresna moduan finkatzera bideratu dira indarrak. Horrela, ahalik eta eremu gehienetara iristea lehentasuna izanik, *modus operandi* zehatz batzuk sistematizatu egin dira toki batetik bestera. Edonola ere, egun hastapenetako inertziak gainditzeko beharra agerian gelditu da, eta herritarren partaidetzan gizartearen konplexutasunari lekua egitea lehentasun nagusietako bat bihurtu da. Begirada aldaketa honetan, berrikuntza eta irudimena aliatuak izan behar dira. Herritarren partaidetzan ohikoak bihurtu diren mekanismoek hutsuneak dituzte, eta herritar batzuk periferian gelditu dira, eta berdin jarraituz gero beti geldituko dira periferian. Beraz, irtenbide berritzaile eta irudimentsuak sortzeko garaian gaude, herritar anitzekin lankidetzaren eraginkorrak sortu nahi baditugu. Horretan, funtzio berriak eta rol berriak behar izatea oso litekeena da, bai gizarte mailan eta baita erakundeetan ere.

Txikitasuna eta singularitatea

Proiektuen diseinu fasean zein metodologia desberdinak martxan jartzeko momentuan, errealitate txikietara hurbilpena ematea komeni da, norbanako bakoitzaren esperientziak eta ibilbidea balioan jarriz. Zentzu honetan, esperientzia batzuek agerian uzten dute eskala txikian lankidetzaren publiko-komunitarioko gune eraginkorrak sortzeko aukera handiagoa dagoela. Adibidez, herri txiki batean askoz errazagoa da komunitate ikuspegi aktibatzea. Komunitatea txikitasunetik azaleratzen da. Horrez gain, prozesuari singularitatea eman behar zaio, taldean dagoen aniztasunari erantzun ahal izateko: hartzaileei begirako kanalak, eta mezu eta lan mekanismo anitzak eta egokituak. Eta horiek integratzeko gaitasuna eta modua landu behar dituzte erakundeek.

Errentagarritasunetik haratago, baliabideak

Politiken diseinuan ahots berriak eta ikuspegi zehatzak txertatzea partaidetzaren egungo erronka nagusietako bat da. Horretarako, aurrerago ikusiko den bezala, prozedura, gune eta harreman zainduak beharrezkoak dira, denbora gehiagorekin, mantsoagoa, herritarren errealitatera egokituz. Era berean, prozesuan pertsona bakoitzak *nor* izan behar du lehenik kolektiboaren parte bihurtzeko, eta *nor* izateko dimentsio desberdinetan ahalduntze prozesua ~~ba~~ ere eman behar da. Laburbilduz, denboraz, patxadaz, singularitateaz aritu behar dugu lankidetzaren sustraiak sortzeko.


Hori guztia aurrera eramanez ahal izateko baliabideak eta denbora behar dira. Hala ere, Administrazioaren ekintzaren beste eremu batzuetan gertatzen ez den bezala, partaidetzaren errentagarritasuna eskatzen da. Zentzu honetan, beste ikuspegi batetik lan egitea premiazkoa da. Lankidetzazko gobernantza ikuspegi komunitariotik indartzea eta eredu inklusiboagoak eraikitzea benetako helburuak izanez gero, errentagarritasuna beste ikuspegi batetik aztertu behar da; izan ere, ezohiko dinamikak bultzatzeaz ari gara: harreman konplexuak sortzea, denboran beste erritmo batera joatea, partaideen eguneroko ezustek kontuan hartzea, gune berriak irekitzea, komunikazioa eta mezuak egokitzea, ezberdinen artean harremantzeko bidelagunak baliatzea, besteak beste.

Begirada kualitatiboa

Partaidetza prozesuak ebaluatzeko garaian, askotan, soilik adierazle kuantitatiboei erreparatzen zaie: asistentzia datuak, saio kopurua, galdetegiko parte-hartzaileak... Datu hauek baliagarriak dira prozesuaren dimentsioa neurtzeko, baina partaidetza dinamiketan bildutako ekarpenak eta lortutako inpaktu soziala modu kualitatiboan aztertzea ezinbestekoa da.

Partaidetza eredu inklusiboagoak lantze aldera, parte-hartzaile kopurua bermatzea beharrezkoa da, baina batzuetan ahazten dugu ekintza indibidualek eta isolatuek prozesuan bere ekarpena ere egiten dutela. Horrela, partaidetzak bere baitan "kolektibitatea", "taldea", "aniztasuna" hitzak ditu, baina norbanako zehatz batzuekin izandako harremanak, elkarrizketa indibidualek, eta modu isolatuan abiatu daitezkeen beste ekintza guztiek prozesua aberastu dezakete eta, beraz, integratzea komeni da.

PAUSO TXIKIEZ OSATUTAKO ERALDAKETA BAT: PARTAIDETZAREN PARADIGMA BERRIAREN GAKO BATZUK



3.BI AZTERKETA KASU: ADINEKO EMAKUMEAK ETA HERRITAR MIGRATZAILEAK HERRI PARTAIDETZAREN EREMUAN

Aurreko orriotan Gipuzkoako herri partaidetzak egindako ibilbidea eta gaur egun aurrean duen testuingurua aztertu ditugu, hainbat datu solteen eskutik, eta prozesuetan inplikaturako profesionalen ikuspegiari erreparatu. Atal honetan, metodologia kualitatiboaren bidez, bi herritar profil zehatzen errealitateetan sakontzea proposatzen da, herri partaidetzak eredu inklusiboagoak garatzeko landu behar dituen erronkak eta aukerak identifikatzea xede nagusia izanik.

3.1. METODOLOGIA OHARRAK

Azterketa kualitatiborako aukeratutako bi kasu azterketak honakoak dira:

- Gipuzkoan bizi diren 65 urtetik gorako emakumeak, herri partaidetza instituzionalarekiko zein instituzioetatik kanpo aktibazio maila desberdinak dituztenak.
- Espainiar Estatutik kanpotik Gipuzkoara etorritako herritarrak, herri partaidetza instituzionalarekiko zein instituzioetatik kanpo aktibazio maila desberdinak dituztenak.

Horrela, profil bakoitzari erantzuten dioten herritar batzuk hautatu dira eta elkarrizketen bidez horiek herri partaidetzari dagokionez dituzten esperientziak eta hausnarketak arakatu dira. Zentzu honetan, azpimarratu behar da azterketan zehar ibilbide eta esperientzia indibidualak deskribatzen direla, eta horietatik abiatuta, herritar profil horiekin lotu daitezkeen hainbat faktore identifikatu ditugula. Hala ere, gizartearen konplexutasuna erdigunean jarri behar da, eta honetan ikerketa-metodologiaren mugak aitortu; izan ere, bildutako ahotsek ez dutela kolektibo homogeneo bat ordezkatzen.

Hori guztia kontuan hartuta, ikerketaren atal kualitatiboan bi metodologia desberdin baliatu dira:

Elkarrizketa sakonak:

Herritar profil bakoitzeko subjektu batzuk identifikatu eta horiekin elkarrizketa sakonak egin dira. Teknika honen bidez, elkarrizketatuen bizipenak eta esperientziak modu sakonean eta konplexutasun handiz ulertzeko aukera ematen du, eta profil horretako subjektuen esperientzietan patroi gisa errepikatzen diren joerak, ñabardurak eta aniztasunak jaso dira.

Zehazki, 4 emakume eta 6 herritar migratzaileekin egin dira elkarrizketak.

ADINEKO EMAKUMEAK				
	Generoa	Adina	Bizilekua	Profila
E1	Emakumea	65 urte	Tolosa	Partaidea Instituzioetan. Esperientzia du ausazko prozesu deliberativo batean parte hartzen
E2	Emakumea	66 urte	Donostia	Partaidea instituziotik kanpo. Bolkuntarioritza espazioetan parte hartzen du
E3	Emakumea	66 urte	Oiartzun	Ez du inon parte-hartzen
E4	Emakumea	68 urte	Lasarte	Partaidea instituziotik kanpo. Bere herriko kultur elkarte batean aktiboki parte hartzen du.

HERRITAR MIGRATZAILEAK						
	Generoa	Adina	Denbora Gipuzkoan	Jatorria	Bizilekua	Profila
M1	Emakumea	50-60	13 urte	Nikaragua	Tolosaldea	Esperientzia du ausazko prozesu deliberatibo batean parte-hartzen.
M2	Gizona	50-60	28 urte	Palestina	Tolosaldea	Partaidea instituzioetan eta instituzioetatik kanpo. Pertsona aktiboa da bere herriko elkartegintza mugimenduan. Esperientzia du ausazko prozesu deliberatibo batean parte hartzen.
M3	Gizona	35	23 (denboraldi batzuk kanpoan)	Maroko	Zaldibia	Elkarte islamiko batean parte hartu zuen.
M4	Gizona	40-50	10 urte	Kuba	Zaldibia	Ez du zuzenean parte hartzen inongo elkarteetan. Bere herriko dinamika kolektiboekin konektatuta dago, kudeatzen dituen denden bidez.
M5	Emakumea	42	6 hilabete	Ukrania	Lasarte	Ukrania-Euskadi elkartearen parte-hartzen du.
M6	Emakumea	20	14 urte	Ukrania	Errearteria	Ukraniako migratzaileei harrera egiten lan egiten du elkarte batean.

Eztabaida taldeak:

Aukeratutako herritar profilak herri partaidetzaren eremuan kokatu eta aztertzeko, Gipuzkoan herri partaidetzaren sustapen eta kudeaketan diharduten hainbat teknikarirekin eztabaida-taldeak antolatu dira. Horrela, administrazioak bultzatutako partaidetza ekimenetan adineko emakumeek zein herritar migratzaileek dituzten aukerak eta erronkak mahaigaineratu dira, eta bi herritar profil horien partaidetza sustatzeko hainbat gako ere identifikatu dira.

Herritar profil bakoitzean sakontzeko, bi eztabaida-talde antolatu dira. Bietan, administrazio desberdinetan partaidetzaren, berdintasunaren eta aniztasunaren arloan, maila tekniko zein politikoan diharduten profesionalak bildu dira.

ADINEKO EMAKUMEAK		
	Kargua	Erakundea
T2	Partaidetza teknikaria	Udala
T4	Partaidetza teknikaria	Udala
T5	Zuzendaria	Berrikuntza sozialaren arloko elkarte bat
T6	Teknikaria	Gipuzkoako Foru Aldundia

HERRITAR MIGRATZAILEAK		
	Kargua	Erakundea
T1	Teknikaria	Gipuzkoako Foru Aldundia
T7	Teknikaria	Udala
T8	Teknikaria	Udala
T9	Teknikaria	Gipuzkoako Foru Aldundia
T10	Alkatea	Udala
T11	Teknikaria	Udala

3.2. ADINEKO EMAKUMEAK

Segidan, elkarrizketatutako emakumeen esperientzietatik abiatuta, partaidetza sisteman adineko emakumeen presentzia bi dimentsio desberdinetatik aztertzen dira. Alde batetik, euren eguneroko bizitzaren gai eta praktika nagusiak arakutzen dira, baita eguneroko horretan eta eremu publikoan, partaidetzak osatzen duen rola ere. Beste aldetik, emakumeek partaidetza prozesuekiko deskribatutako pertzepzioak eta esperientzia zuzenak mahai gainean jartzen dira, herri partaidetzaren eremuan kolektibo honen aukerak eta erronkak identifikatzeko.

3.2.1. Bizimoduak, ohiturak, eta herri partaidetzarekiko kokapena.

Eguneroko bizitza zaintzari begira, "besteei begira"

Adineko emakumeen presentzia herri partaidetzaren esparruan kokatu ahal izateko, ezinbestekoa da egun dituzten bizimoduei eta ohiturei erreparatzea; izan ere, bakarrik modu honetan ulertuko dugu elkarrizketatutako emakumeek nondik begiratzen dioten eremu publikoan eduki dezaketen inplikazioari.

Azterketa honetarako, sistema patriarkalak emakumeei eman dien rola zeharkako faktore bezala hartu da. Izan ere, familia eremua, etxea eta zaintza lanak, presentzia handia duten kontzeptuak dira elkarrizketatutako emakumeen diskurtsoetan.

Iraganean zein orainean, zaintza lanei begirako bizitza ~~bat~~ sumatzen da; horrela, kasu askotan, seme-alabak eta bilobak zaintzea eguneroko bizitza egituratzen duen praktika bezala deskribatzen da. Hein batean, elkarrizketatuen hitzetatik sumatzen da "familia barneko" zaintza ardurak egunerokoan beste praktika batzuk txertatzea baldintzatzen duela. Hala ere, zaintzetatik kanpo gelditzen diren ohituren artean, partaidetza aktibo bat aurkitzen dugu forma desberdinetan.

(E4) Nire eguneroko bizitzan? Momentu honetan tokatzen zait nire biloba zaintzea. (...) Zaintza lanak tokatzen zait egitea. Eta jarraitzen baita ere dut proiektuaren administrazioan. Lan hori bolondresa izango da, eta horrela jarraituko du izaten, nahi dudalako, gustatzen zaidalako, sinesten dut proiektuan, ilusioa daukat...

(E2) Nire egunero nago jubilatuekin. Emakumeok egia da ia denak izan garela langileak eta familia. Horrek asko mugatu du. Momentu honetan gara jubilatuek eta familia dugu baita ere. Baina jende oso aktiboa dela uste dut. Parte hartuko luke, baina denborarik ez, eta urrutiegi gelditzen delako. Egunerokotasuna lanean eta familiarekin da submarino bat bezala. Parte hartu behar da, bai, baina zer kentzen duzu parte hartzeko? Horretan zailtasunak daude.

Bestalde, maila diskurtsiboan, eguneroko ohiturak deskribatzerakoan lasaitasuna, deskantsua eta ongizatea nagusitzen diren hitzak dira. Beste modu batean esanda, jubilatuek bizitzan zaintza lanei garrantzia handia dute, baita aisialdiak eta deskantsuak ere, eta horretan askotan herrian partaidetza aktiboa ~~bat~~ eramateak ez du lehenetsia.

(E1): El voluntariado, la palabra es muy bonita, pero hoy en día los jubilados hemos pasado años pensando qué vamos a hacer cuando lleguen esos años sin trabajar, cómo vivir una vida más relajada, ir de vacaciones etc, pero hoy en día los jubilados cuidamos de los nietos, les damos comida, les llevamos al cole...y cuando el cuerpo no lo entiende y los nietos tampoco nos gusta descansar, que hemos estado toda la vida cuidando de los hijos y el trabajo...

Bizitza ibilbide anitzak eta herri partaidetza

Elkarrizketatutako adineko emakumeen artean herri partaidetzarekiko antzematen diren jarrerak eta pertzepzioak bakoitzak iraganean bizi izandako esperientziak baldintzatutakoak dira. Bere aldetik, partaidetza eremuan diharduten administrazio teknikarien esperientziak erakusten digu kasu askotan partaidetza prozesuetan parte hartzen duten emakumeek profil zehatz bati erantzuten diotela: eremu publikoan ibilbide aktibo bat izan duten emakumeak, lan munduan aritu izan direnak. Nolabait, egun partaidetza aktibo bat duten emakume helduek beste garai batzuetan ere beste partaidetza espazioak izan dituzte, eta euren herrietako bizitza kolektiboarekin konektatuta egon dira.

Aldiz, etxean eta familiaren arduraren aritu diren emakumeak partaidetza espazioetara erakartzeak beste prozedura eta mekanismo batzuk eskatzen ditu; izan ere, neurri handiago batean esfera pribatuari begira bizi izan diren emakumeak dira.

(T4) Ikusten da alde handia. Lan merkatuan ibili diren emakumeak eta etxean lan egin dutenak, izaera desberdinak izaten dituztela horrelako prozesuetan, edo jarrera desberdinak izaten dituzte. Gerturatze aldera, adibidez, normalean zailtasun handiagoak daude etxean lanean ibilitakoekin, ez daukatelako ohiturarik.

(T2) Bertara etortzen direnak, kopuruan, gizonen eta emakumeen kopuruak oso parekatuak izaten ari dira azken urteetan. Eta adin tarte horretakoak ere etortzen zaizkigu. Hitzak hartzerakoan ere berdintsu esango nuke. Bai oso profil konkretuko emakumeak dira: gehienak jubilatu berriak direnak, ikasle izan direlako, enpresa mundutik egon direlako, alegia, lan mundutik datoz, eta lan munduan direktibo izan direnak, hau da, enpresa aurrera eramateko ohituta daudenak. Oso-oso gutxi dira etxeko eremuan bakarrik mugitzen direnak. (...) Jubilatuen kolektiboetan, beraien egoitza aurrera eramateko urte hauetan kriston bueltan ematen ari da. Txiringito horiek eramaten ari zirenak gizonak ziren, eta azken 3-4 urteetan egoera izugarri irauli da eta gehienetan, junta horietan 6 pertsona baldin badira, 4 emakumezkoak dira eta 2 gizonzkoak dira, 65 eta 70 urte bitartekoak. (...) Etxe inguruan dabilzan hainbat emakumerengana iristea oso zaila gertatzen zaie eurei ere bai, eta zer esanik ez, baserritarrei edo landa eremukoei. Hori zaila da erakartzea dinamiketara.

Bizitza ibilbidea eta bizimodua kontuan hartu beharreko faktoreak direla onartuta, errealitateak erakusten digu 65 urtetik gorako emakumeen artean -adin tarte guztietan gertatzen den bezala- administrazioaren dinamiketatik oso urrun dauden pertsonak daudela. Bizitza publikoarekiko jarreraz edo prestutasunaz gain, ezezagutza da urruntasunaren arrazoi nagusia; hau da, emakume hauek ez dute presentziarik haientzat existitzen ez den mundu batean. Ziurrenik, sistemarekiko ezezagutza da egun herritarren partaidetza bultzatzeko garaian aurre egin behar zaion erronka nagusietako bat.

(T5) "¿Qué pasa con esas mujeres mayores, más mayores, que no están en el hogar del jubilado, que no están en los programas de ocio activo...? Hay muchas a las que no llegamos y sospecho que no vamos a llegar."

Hala ere, elkarrizketatutako adineko emakumeen artean bizitza publikoari dagokionez esperientzia desberdinak identifikatu dira. Partaidetza kultur elkarteetan, erabiltzaile zein antolatzaile moduan, boluntarioria jardueretan eta herriko ekimenetan inplikaturik daude emakume batzuek parte hartu dute elkarrizketetan. Esperientzia hauek agerian uzten dute zeintzuk diren egun nagusitzen diren partaidetza eremuak emakume hauen artean, eta ondorioz, administrazioetik pertsona profil honen partaidetza sustatze aldera zeintzuk izan daitezkeen hurbilpen esparruak.

(E4) Proiektu horretan bertan. Niretzat hori ez da izan lana, izan da baita ere niretzako, nire momentua. Bertan antzerkia egiten dut, eta dantza baita ere. Sortzailea naiz, baina parte-hartu dut ere bai.

(E2) Helduentzat elkarteak ezagutzen duzu? 700 bazkide dauzkan elkarte bat da, helduak, ez jubilatuek. Bertan modu bolondresan, Udalak utzitako lokaletan (...) Nik parte hartzen dut idazketan, narratiban, irakurketan...elkartek antolatzen du bazkideok antolatzen duguna. Erabiltzaileak gara baina parte hartzea eskatzen da, gutxiago edo gehiagorekin. Mendi ibilaldiak, eta talde bakoitzak bere komisioa dauka. Ni momentu honetan erabiltzailea naiz, oso aktiboa, baina ez dut antolamenduan parte hartzen.

(T2) Ez nuke esango 60-65 urteko emakumeek ez dutenik parte-hartzen. Dago elkarte bat gauza asko antolatzen dituen. Izugarria da daramaten martxa. Jubilatuen elkarteak ere udaletxea baino askoz hobeto daude antolatuta. (...) Esango nuke perfil bateko emakumeek ez dutela parte hartzen. Besteak, aldiz, nik esango nuke gaur gaurkoz, hainbat eremutan, "lobbya" dena esango nuke eta adin horretakoak dira".

Parte hartzeko ohiturak eta pertzepzioak

Nahiz eta batzuek partaidetza ekimenen batean parte hartu izana, ikerketa honetan parte hartu izan duten emakumeek euren burua instituzioek abiatutako partaidetza mekanismoetatik urrun kokatzen dute. Hala ere, hainbat kasutan tokiko administrazioarekin komunikatzeko prozedurekin familiarizatuta agertu dira.

Dimentsio indibidualetik abiatuta, emakume batzuek kexak eta aldarrikapen indibidualak bideratu dituzte euren herriko udalera. Esan dezakegu administrazioak herritarrekin komunikatzeko dituen kanal arruntak ezagutzen dituztela eta kontuan dituztela. Hau da, neurri desberdinetan bizitza publikotik deskonexioa adierazten duten arren, konektatzeko aukera ere sumatzen da. Hala ere, azpimarratzekoa da kezka eta nahi indibidualetik abiatutako egoerez ari garela.

(E2) Partaidetzak...nik beste partaidetza bat. Zaborren inguruan nik udalari zenbait idatzi egin dizikiot. Egia da nik azaldu ditudan kexak direla jendeak zaborra edozein tokitan eta edozein tamainako zaborra botatzen duelako, eta gero jaso gabe egon direlako zabor horiek ez dakit zenbat denbora.(...) Ez da partaidetza politiko bat, eskatzen den bezalakoa. Kexa da.

(E3): - Herri batzar hauetan zuk parte hartu duzula esan duzu...

- *Bai, eskaera batekin, oraindik ez dut lortu. Hau da zentroa, hemen daude banketxeak, eliza nagusi, albaitaritza klinika bat, eta hor dago parkin estali bat dago, baino ordu t'erdia utzi dezakezu kotxea, gero atera behar duzu, eta gaez ez (...) hemen jende asko bizi da, ez da nahikoa eta aparkatu ezinean gaude.*
- *Joan izan zara sortu zaizunean kezka berezi bat.*
- *Beharra.*

Parte hartze espazio deliberatiboagoetan parte hartzea mahai gainean jarri denean, diskurtso eszeptikoak eta interesik eza ere azaleratu dira. Herritarren politika publikoen inguruko eztabaida irekietan partaidetzarekiko egun sumatzen den mesfidantza eta indiferentzia ere emakume elkarrizketatuek adierazitako posturak dira.

(E2) Azken finean iritziak eman eta hori, baina politikariek beren direktizeak dituzte eta uste dut kasu gutxi egin dutela. Oso gutxi. Markatuak dituzte beraien zereginak eta, orduan bai, iritziak jaso, herritarrei eskatu partaidetza serio bat eta, eta gero entzuteko, baina horri guztiari erantzun eskasa ematen zaio

(E2) Oso egituratuak daude partiduak, oso ideologizatuak, eta ez gizartearekiko, baizik eta ideologia batean. Bat, bestea, eta hurrengo eh? Orduan, horretan partaidetza herritarroi iritzia eskatzea baldin bada, nekez lortuko da.

Eremu publikoan eztabaidatzeko dagoen kulturak eragiten du hainbat pertsonengan: *lehia eskeman, irabazi-galdu eskeman, bestea gailentzeko eskeman. Zailtasunak daude eztabaida batean bestea entzuteko, bestearen ideari lekua egiteko, ideia ezberdinak konpartitzeko eta horien arteko elkarrizketa sortzeko.*

3.2.2. Adineko emakumeak parte hartzeko garaian

Behin bizimoduak eta partaidetza sozial eta politikoaren inguruko pertzepzioak aztertuta, adineko emakumeen kasuan parte hartzeko espazioetan eman daitezkeen egoera zehatzak, oztopoak eta aukerak aztertu dira. Jarraian, partaidetza eremuan diharduten profesionalen eta elkarrizketatutako adineko emakumeen bizipenetatik abiatzen gara arakatzeko, alde batetik, zeintzuk izan daitezkeen partaidetza espazio instituzionaletan adineko emakumeen presentzia mugatu dezaketen faktoreak, eta beste alde batetik, bertan parte hartzeko momentuan kolektibo honengan identifikatzen diren egoera zehatzak.

Partaidetza eta generoaren inplikazioak.

Adineko emakumeen partaidetza dinamikak aztertzeko erreparatu behar zaion lehenengo elementua genero desberdintasunak dira. Partaidetza espazioetan adierazitako abiapuntuari, jarrerari eta prestutasunari dagokienez, ikerketa prozesuan bildutako esperientzia askok emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak diskurtsoen ardatz izan dira. Beste behin, azpimarratu behar da hemen aztertzen diren egoerek lotura handia dutela bizi dugun sistema patriarkalaren inplikazioekin.

Partaidetza espazioetan generoaren dimentsioak dituen inplikazioak deskribatzeko garaian nagusiki hiru egoera aipatu dira. Lehenengoak bizitza publikoan eta esparru politikoetan aritzeko prestutasunari erreferentzia egiten dio. Partaidetza eremuan irekitako espazio eta prozesuak eremu publikoan kokatzen dira, alegia, historikoki emakumei egokitu ez zaien espazio bat. Egun, nahiz eta prozesu gehienek gizonak zein emakumeak deitu, kontuan hartu behar da generoaren arabera interpelazio maila desberdina izan daitekeela. Deialdi baten aurrean, beraz, gizonak ohituago eta prestuago sentitu daitezke emakumeak baino. Beren aldetik, emakumeen artean ohikoagoa da espazio horietan euren presentziaren egokitasuna zalantzan jartzea.

(E4) Aurreko batean bilera batean, eta orduan justu gaude jende desberdina gauzak antolatzen, eta ni emakume bakarra. Eta nik barrutik sentitzen nuen: "ni zer egiten ari naiz hemen?". Nire adinekoak bazeuden, baina gizonak. Eta gazteak eta horrela. Eta barruan esaten nuen "zer egiten dut hemen?". Eta uste dut gizon batek ez duela hori planteatzen, eta emakume batek hori planteatzen du, gero eman nion buelta "nik zer egiten dut hemen? Ba besteak bezala: ni hemen nago nire iritziak ematen eta parte hartzen", buelta ematen diozu, baina zuregandik pasatzen da hori, mezu hori iristen da; orduan nik uste dut oso desberdina dela, gizon batek beti atea irekiago izango duela emakume batez baino. Ni sentitu naiz horrela.

(E2) Nik uste dut emakumeok pertsona irekiak garela. Momentu honetan, egia da maila kulturala eta egoera soziala duguna dela. Horrek mugatu du, bizi izan gara gauza gehiegirekin. Berdintasuna eta ko-... ko-gauzak ez dira egon. Gizonezkoak direnei errazagoa egin zaie kanpoan egotea.

Bigarrenik, eta aurrekoarekin lotuta, emakume askok ez dute ikusten bere burua herri partaidetzaren esparruetan parte hartzeko gai. Euren bizitzan zehar partaidetza eremutik urrun kokatuta, egun sentitzen dute beste pertsona batzuk haiek baino askoz egokiagoak direla espazio horietan egoteko; hau da, neurri batean, egin dezaketen ekarpena zalantzan jartzera iristen da.

(E4)

- *Noizbait jasotzen baduzu deialdi bat, adibidez deliberazio talde batean parte hartzeko norbanako bezala...nola hartuko zenuke?*
- *Seguruenik ez nuke parte hartuko. Alde batetik, adina, eta beste aldetik emakumea. Nik hori ikusten dut. Horrelako deialdi bat emakume bat eta gizon bat adin berdinarekin ez zuen hartuko berdina. Gizona agian segun berak zer bizitu duen eta dena, errazago bizituko luke holako prozesu bat emakume bat baino.*

(T6) Emakumeen Etxean ez daude gizonak, eta gizonak daudenean ematen dira dinamika bat dena balio sinbolikoa kontzentratzen dutela eta guk emakumeok ematen diegula. Hor hasten dira funtzionatzen generoaren araberako sozializazio mekanismoa, jaso duguna, eta segituan jartzen gara pentsatzen "zenbat dakien horrek eta nik ze gutxi dakidan, are gehiago, gaia "aurrekontuak" baldin badira.

Hirugarrenik, parte hartzeko espazioetan bertan emakumeek eta gizonak hartutako dinamiken arteko desberdintasunak aipatu dira. Espazio mistoetan eta eztabaida kolektiboak abiatzeko momentuan eman daitekeen biolentzia sinbolikoak emakumeen parte-hartzean ere eragiten du: publikoari begira hitz egiteko ohitura eta gaitasuna, eztabaidatzeko jarrerak, hitza hartzeko dinamikak... Elementu horiei erreparatzea ezinbestekoa da partaidetza espazioetan emakumeen presentzia errazteko momentuan.

(E2) Iritzi bat da eta listokeri bat izan daiteke. Baldin bagaude 6 emakume eta 3 gizon bileretan, 3 gizonek hitz egingo dute 6 emakumeek baino gehiago. Genero kontua niretzat oso garrantzitsua da. Denok parte hartu behar dugu, berdintasun egoeran, baina nik uste dut jarri behar dela tope. Zergatik entzun behar dut ahots hori gehiago? Nik hori sumatu dut. Literatura bileretan 14 emakume eta 3 gizon, edo 2, eta iritzia eman eta eman eta eman. Eta agian errepikatzen ari dira lehenago esan duguna. Konturatu daitezela zer egiten duten.

(E4) Azkenean indartu behar gara, ez baduzu zure espazioa zaila da indartzea. Prest nago eta aniztasuna gustatzen zait, aniztasunak egiten du arduratzea gehiago bat bestearena. Baina emakume bezala behar dugu gure espazioa, eta gure artean berdintasun horretatik, funtzionatzea pixka bat. Emakumea izatea edo gizonezkoa izatea ez da berdina.(...) Nik uste dut baduzula hasiera bat egitea, ibilbide bat egiten badugu gehiago elkartuko gara eta esparru desberdinak hartuko ditugu, baina bai behar duzu aurrena modu batean indartzea zerbait, gero hori irekiagoa izateko. Ez naiz ixten, nik uste dut anitzagoa hobeto (...) Ez dut ikusten gizartea izan behar dela "hemen gazteak" "hemen emakumeak" "hemen gizonak", ez dut ikusten horrela, uste dut anitza izan behar dela eta egon behar direla espazioak non denok elkartzen garen. (...) Zuk baduzu zure taldetxoa non indarra hartzen duzun, eta gero horrek ematen dizu aukera gero besteekin elkartzeko.

Adinaren inplikazioak partaidetzari dagokionez

Elkarrizketatutako emakumeen eta teknikarien ustez, adina -edo adinaren inguruko pertzepzioa- kontuan hartu beharreko beste faktore bat da 65 urtetik gorako emakumeen parte-hartzeaz hitz egin nahi badugu. Generoaren dimentsioarekin gertatzen den bezala, bildutako pertzepzioetatik sumatzen da adinak partaidetzarako prestutasuna eta gaitasuna mugatzen dituela.

Adinaren kasuan, elkarrizketatuek gazteagoak diren partaideekin alderatzen dute euren burua, eta neurri handi batean partaidetzarako gaitasunean aipatutako desberdintasunak ikasketa mailatik datoz. Zentzu honetan, "ikasketa maila"-k edo "maila kulturala"-k diskurtsoak garatzeko gaitasuna eragiten dutela ikusten dute elkarrizketatu batzuek; hau da, herri partaidetza espazioetan aritzeko gazteak prestatuago daude.

(E4) Adinak baita ere eragiten du. Niri gustatzen zait eta oraindik ikusten naiz kapaz naizela gauzak egiteko eta ilusionatzen dit eta parte-hartzen dut, baina askotan botatzen dizu atzera. Pentsatzen duzu "Nik ya hemen zer pintatzen dut?". Eta ni ez naiz erabat baztertu egiten naizena eh? Nik ikusten dut hori egiteko kapaza naizela, baina bai sentitzen zara baztertua.

(E4)

- Zure inguruan badaude pertsona batzuk, emakume batzuk ez dutenak beren inguruko ezertan parte hartzen...
- Bai, eta nik uste dut faktore bat izaten dela adina eta emakumea izatea. Gizonezkoek agian beste modu batean parte hartuko dute, baina emakumeei gehiago kostatzen zaie "ez hori gazteak, gazteak" ez dakit...niri oso ondo iruditzen zait gazteak egin behar dutela, baina gu baita ere oraindik bizi gara ezta? Eta gainera guk ez baditugu gure gauzak antolatzen...

Beste aldetik, kasu batzuetan adin berak partaidetza ekimenenetara iristea mugatzen du. Zehazki, indar faltarekin, nekearekin edo gaitasun fisikoarekin lotutako diskurtso batzuk antzematen dira parte hartu ez izatea argudiatzeko momentuan.

(E3) (Deialdi baterako gonbidapena jasoko balu joango litzatekeen ala ez) Ikusiko nuke, baina pereza handia ematen dit. 66 urte ditut, bizitza osoa horrela ematen da...momentu honetan ez dut gogo handia (...) Nik nahiago ditut nire liburua.

Administrazioaren lengoaia eta diskurtso maila oztopo

Aurreko puntuan arakatu dira elkarrizketatutako emakumeen ikuspuntuak, euren buruak partaide bezala irudikatze momentuan. Ikusi dugunez, deskribatutako diskurtso batzuk nolabaiteko *gaitasun faltaren* inguruan kokatzen dira. Honekin lotuta, partaidetza eremuko profesionalekin antolatutako eztabaida taldean *gaitasun falta* horren pertzepzioa areagotu dezakeen beste faktore bat aipatu zen: administratziotik bultzatutako prozesuetan erabilitako mezuak eta lengoaia. Zentzu honetan, hitz teknikoek, kontzeptu juridikoek, eta administrazioaren lengoaia espezializatuak kasu askotan herritar arrunt baten ezagutza eta gaitasuna gairatzen dute, eta ondorioz pertsona horien parte hartzeko prestutasuna eta gogoak murriztu daitezke.

(T5) El uso de las palabras. Y esto no es solo para personas mayores y mujeres. Yo estoy convencida que en estos procesos hay conceptos que ni jóvenes ni de mediana edad, con estudios universitarios o sin estudios, o mayores, creo que hay muchas palabras que tienen que ver con las normas de participación, pero que no hay quien las entienda en su detalle.

(E1): Yo me daba cuenta de que la gente con estudios habla mucho mejor que una que no tiene estudios, normal.... Le sale las palabras...y yo pensaba ¿dónde me he metido?

Presentzialtasuna eta eremu digitala

Partaidetzaren eremuan zein administrazioaren eraldaketaren testuinguruan esparru digitala hartzen ari den dimentsioa kontuan hartu beharreko faktore bat da adineko emakumeen partaidetza aukerak aztertze momentuan. Egun bizi garen garai digitalean, adineko pertsonak beste herritar kolektiboek baino ahalegin handiagoa egin behar dute eremu digitalean jarduteko. Errealitate hau aintzat hartu behar da, gero eta maizago gertatzen den moduan, partaidetza ekimenetan online espazioak sortzeko egokitasuna baloratzeko momentuan.

Era berean, elkarrizketetan kanal digitalen erabilera eta aurrez aurreko espazioen erabilerarekin alderaketa agerian gelditu da. Zehazki, partaidetza ekimenak aurrez aurre eta elkargune presentzialetan egiteko aukera modu positiboagoan baloratu da; izan ere, modu horretan sortzen den gertutasuna eta konfiantzak partaidetza erraztu dezakete.

(E4) (tresna digitalak erabiltzea) Nik uste dut mugatuta dagoela, oso mugatuta. Adibidez, nik teknologia horiek ikasi ditut eta bueno, ibiltzen naiz, baina behararengatik, aktibo naizelako eta egon behar nintzelako hor pixkat, baina jende askok pasa egiten du, eta nik baita ere holako gauzetan pasa egingo dut. Nik ez dut horrela bozketa bat egingo. Presentzialtasuna bermatu behar da, eta bilerak ere presentzialak. Online izango balitz ez naiz konektatuko, egin izan dira eta egia esan ni ez naiz konektatu. Pantailaren aurrean ze parte hartzea egingo duzu? (...) Hitz egiteko modua baita ere izango da gauza bat super teknikoa, hizkera formala, eta azkenean zaude hor entzuten eta galdetzen "zer esan nahi zuten?" Alde horretatik nahiago dut presentziala izatea.

(E2) Hartuko nuke digitalean gauza motz bat baldin bada, ez baldin bada diskusioak sortzen direla, ondo egituratuta baldin bada... Aurrez aurre agian errazagoa iruditzen zait. Pandemian lanean online egiten genituen mintegi bilerak, bukaezinak ziren. Antolatuta baldin badira nik hartuko nuke. Gainera, moderadore batekin berriro ideiak ateratzeko eta errepikatze...

Partaidetza bera ikaspen prozesu bezala ulertuta

Adina, generoa, mundu digitalean aritzeko gabeziak...partaidetza espazioetan adineko emakumeentzat mugak diren elementu desberdinak aztertu ditugu aurreko ataletan. Hala ere, izandako esperientzia zehatzak aztertuta, partaidetza bera mugak gainditzeko tresna bat izan daitekeela ere sumatzen da. Zentzu honetan, partaide moduan bizipenen bat duten elkarrizketatutako emakumeek zein teknikarien esperientziak bat egiten dute esatean partaidetza prozesu batean aritzea ikaspen prozesu bat bihurtzen dela ordura arte ezezaguna zen eremu bat esploratzen delako, baita partaidetza aukera propioekiko eta prozesu berarekiko aurreiritziak apurtzen direlako ere. Aldi berean, ikaspen prozesua partaidetza espazioetan parte-hartze propioaren aurrean ahalduntze prozesu bat ere bilakatzen da.

(T5) A mí me parece que no conocen este tipo de convocatorias. Las mujeres más mayores, de 75 en adelante, ni conocen las convocatorias, ni conocen las dinámicas, ni conocen sus derechos con relación a la participación, y creo que cuando los viven en propia persona, viven eso como un aprendizaje personal.

(T6) Baliagarria zaie partaidetza. Zerbait ikasten dutela sentitzen dute, askotan eskatzen dute formazioa, formazioa eta formazioa. Eta guk behar dugun entzuketa maila oso altua izan behar da, haiek euren xumetasunetik hartzen dute parte. Eta xumetasun horretatik guk jakin behar dugu hor dagoen sakontasuna hartzen, ez eurei eskatu hori egiten.

(E1):

- *Si no hubiera ido yo a esto (asamblea ciudadana), no hablaría hoy así contigo. Tengo más facilidad, porque de este tema sabía cosas sueltas...Sí, ha sido un aprendizaje.*
- *¿A parte del tema, qué otros aprendizajes te llevas?*
- *Igual me he abierto un poco más a hablar. No es lo mismo gente chavalas estudiando que saben de todo...que yo, que dejé de estudiar con 15 años y desde entonces no he estudiado nada. Empecé a trabajar y no he estudiado nada. A ver, ahora que te vengan a ti con chavalicos que da gusto como hablan...había de todo, profesores de la universidad, masajistas...la mayoría gente con estudios. Pero bueno, yo creo que ahora me cortarían menos, no hablaría mucho, pero me cortarían menos para dar la opinión.*

3.3. HERRITAR MIGRATZAILEAK

Atal honetan elkarrizketetan parte hartu duten herritar migratzaileen errealitatera hurbiltzen gara bi eremu nagusiri erreparatuz. Alde batetik, elkarrizketatuek euren herrietan dituzten eguneroko praktikak aztertzen ditugu, arlo pribatuan zein euren herrietako dinamika komunitarioei dagokienez. Beste aldetik, esperientzia indibidualetik abiatuz, gertu izan dituzten partaidetza prozesu desberdinen inguruan egiten dituzten hausnarketak biltzen dira.

3.3.1. Herritar migratzaileen eguneroko errealitatea eta herri partaidetzarekiko kokapena.

Errealitate anitzak eta gizartearen konplexutasunak

Herritar migratzaileen errealitatea partaidetza eremutik aztertzeko garaian mahai gainean jarri behar den lehenengo faktorea gizarte talde honen konplexutasuna da. Horrela, hainbat eskalatan kolektibo honen barruan ematen den aniztasuna abiapuntua izan behar da instituzioek herritar migratzaileekin komunikazioa eta elkarrizketa eraginkorrak planteatzeko momentuan. Hobeto esanda, *kolektibo* batez hitz egiteak ez digu utziko herritar hauen errealitatea egoki irakurtzen eta ondorioz proposamen eraginkorrak planteatzen. Beraz, herri partaidetzari dagokionez herritar kanpotarrak homogeneizatzeko joera da irauli behar den elementu bat.

(T9) Erakundeetatik jotzen da homogenizatzerak kanpotarrak, baina etorkinen artean iturri edo jatorri asko daude, eta baldintzatzaile desberdin asko daude. (...) Hizkuntza asko, erlijio asko, baldintzatzaile asko, lan egiterakoan ere segun nongoa zaren lan mota batzuk dituzu ordutegi batzuetan, emakumea baldin bazara indartze edo enpoderatze puntu hori ez duzu...Nahiko konplexua da errealitatea, errealitate anitzak daude, ez bakarria.

(T1) Sentsazioa daukat ez garela gai dibertsitatez irakurtzeko hori. Figura eta errealitate oso desberdinak daude: maila akademiko kultural eta ekonomiko on batetik datozenak migratzaileak dira eta oztopo handiak dituzte baina beste toki batean kokatzen dira, gero egon daiteke jendea irakurtzen eta idazten justu samar dabilena...konplejizatze behar horri, eta konplejizatze behar horretan toki mailako balidabide publikoak: liburutegiak, gizarte etxeak...(...) hor badaukagu lan bat artikulatzeko ikuspegi komunitario batetik, instituzioetatik, jendea identifikatzeko eta barruan gure zerbitzu eta baliabidean parte hartzen duten horiekin lotura egiteko.

Eguneroko harreman sareak eta sozializazio esparruak.

Elkarrizketetan parte hartu duten herritar migratzaileei eguneroko ohiturez eta sozializazio esparruez galdetu zaie. Zehazki, aisialdi garaian eta eguneroko arduetatik kanpo dituzten ohiturak deskribatzea eskatu zaie. Modu horretan, herritar hauen sozializazio gune nagusiak eta partaidetza espazio batzuk identifikatu dira. Izan ere, hauek dira instituziotik bultzatutako herri partaidetzarako konexio guneak bihurtu daitezkeen espazioak.

Elkarrizketetan aipatutako ohiko espazioak hiru logika desberdinetan sailkatu ditzakegu. Lehenik, sozializazio esparru informalekin lotuta, errelato guztiek familiarekin partekatutako aisialdia erdigunean jartzen dute.

(M3) (Sobre relaciones con otras familias marroquíes del pueblo) Con alguna que otra sí, aunque nosotros, con el tiempo, casi sin querer, ya somos bastantes, y nos juntamos en casa de los abuelos y somos una multitud. Hacemos mucha vida también entre nosotros. Nos juntamos vamos a comer a casa de los aitas...

(M1): Hay muy pocos. Yo como tengo a mi familia aquí, generalmente el domingo a mí me gusta ir a misa de 12 a 13h (...), y después de la misa ya quedamos, con alguna de mis hermanas, o con mi hermano, o con mis hijas...y quedamos y venimos al frontón a tomar algo o a picar algo. Y nos gusta cuando estamos de cumpleaños juntarnos, en invierno en alguna de las casas, y si es verano nos vamos de barbacoa por ahí, y ahí pasamos el día.

Bigarrenik, elkarrizketatutako herritar migratzaileen esperientzien artean jatorriko komunitatearekin lotutako elkarte eta topagune batzuk aipatu dira. Kultu-espazioak (elizak, mezkita...) zein kultur komunitateen elkarteak eremu publikoan sozializatzeko guneak dira. Espazio hauek harreman sarea eraikitzeke baliagarriak zaie elkarrizketatutako pertsona batzuei, baita jaioterriko kultura eta ohiturekin lotura mantentzeko ere. Hori guztia kontuan hartuta, espazio horien existentzia eta funtzioa kontuan hartu beharrekoak dira instituzioetatik abiatutako ekimenetarako espazioa irudikatze aldera.

(M6): Las iglesias son un sitio frecuentado de todas todas. Igual la gente que ya es segunda generación y no es tanto de allí, sino un poquito más de aquí, esa igual no. Pero si se quiere ayudar a la gente que viene de Ucrania las iglesias son muy importantes, porque todo ucraniano que viene aquí busca una iglesia a la que acudir los domingos. Por allí se conseguiría llegar a un ucraniano recién llegado aquí.

(M3) Estuve, pero ya no estoy en una asociación cultural islámica, en Ordizia y Tolosa. En un momento dado sí que estuve como miembro de la asociación, pero luego lo dejé y ahora estoy como voluntario. Me suelen llamar para temas de traducciones, de cara a hablar con las instituciones...Muchas veces llega gente que igual no se comunica bien en castellano y tienen dificultades, entonces yo hago un poco esta labor.

Azkenik, herritar migratzaileek aipatutako sozializazio esparruen artean eskolak duen garrantzia nabarmentzekoa da. Eskolak herritar migratzaile batzuentzat betetzen duen funtzioa hemengo sistema ezagutu eta bertan integratzeko funtsezkoa bihurtzen da. Elkarrizketatu batzuen testigantza araberak, seme-alaben eskola auzoko edo herriko herritarrekin harremanetzeko espazio baliagarria da; hau da, herriko dinamiketarik at sentitu diren heinean, eskola konektatzeko gunea bihurtu da.

(M6)

- *Participan mucho a todo lo que tenga que ver con sus hijos. Si en el cole van a organizar un evento para los niños, sí que ahí sí que participan. Esta el tema del euskera. Los ucranianos pocas veces hablan euskara, y aquí hay padres muy euskaldunes que se ponen a hablar en euskera y esto les choca un poco, pero todo lo que tiene que ver con sus hijos, con el colegio, el entorno del colegio, allí sí que participan mucho.*
- *Así que la escuela puede jugar ahí un papel interesante...*
- *Sí, de hecho, por ejemplo, el 20 de mayo se organiza en la ikastola de Errenteria el día de la ikastola. Ahí van niños ucranianos, entre ellos mi hermano y mi ama y sus amigas han sido las primeras en meterse en temas así y ayudar a organizar eso. (...) En anteriores cosas de la ikastola ha solido participar ella con su grupo de amigas, y han ayudado tanto para organizaron una cosa de sabores del mundo y estuvieron en la organización y el día mismo estando ahí mismo preparando y organizando todo.*

Eskola berak inklusioa eta aniztasunari dagokionez izan dezakeen hezkuntza proiektuaz gain, hezkuntza zentroen inguruan ematen den bitzita kolektiboan jarri dute arreta elkarrizketatuek: eskolako busaren geltokia, sarrerak, eskolako festak...espazio informalago horietan ematen diren interakzioak eta elkarteak balioan jartzen dituzte.

Hala ere, herritar desberdinak konektatzen dituen espazioa bihurtzen den heinean, aniztasuna eta elkarbizitzarekin lotutako kudeaketak ere beharrezkoak bihurtzen dira eskolen eguneroko dinamiketan; izan ere, batzuetan eskolatik abiatutako ekimenek talka egin dezakete herritar batzuen kultur-ohiturekin edo kosmobisioekin. Testuinguru horietan sor daitezkeen gatazken eta egoeren azterketa lan honen mugak gainditzen dituen arren, azpimarratzen dugu testuinguru horietan bideratu daitezkeen kudeaketak eta irtenbideak garrantzitsuak direla herritar migratzaileei begira eskolak jokatzeko duen zubi-lan hori zaintzeko.

Bertako dinamiketatik at

Herri partaidetza ikuspegi komunitario batetik eraikitzea helburua izanda, edonor herriaren edo komunitatearen *parte sentitzea* ezinbesteko elementua da. Zentzu honetan, herritar migratzaileen errealitatearen deskribapenean *parte sentitze* horretatik urruntzen duten egoera batzuk sumatzen dira.

(T1) Ekintza ikuspegi komunitariotik planteatuta, partaidetza politiko edo sozialera salto egiteko, zenbaiten parte sentitu behar zara, eta bermatu beharko genuke zenbaiten parte sentitze hori. (...) Herriko parte baldin badira baina kanpotik, kulturalki, dena delakoagatik, agian badaude deialdian gauza berezi batzuk egin beharra baldintzapen kultural horienagatik partaidetza prozesu baten diseinuan, eta horiek agian identifikatu ditzakegu, baina arazo nagusia da ez direla herriaren parte.

Alde batetik, elkarriketetan, herriko dinamika kolektiboan parte hartzeaz solastu dute pertsona batzuek. Zentzu honetan, herriko festak eta udal mailan antolatutako ekimen desberdinak deskribatu dira. Horietako batzuk herritarren arteko elkar-ezagutza eta interakzioa bideratzeko ekimen moduan ulertzen dira. Beste batzuek, ordea, komunitate barruan dauden distantzia sozialak agerian uzten dituzte. Edonola ere, elkarriketetan parte hartu duten herritar migratzaileek balioan jartzen dute euren auzoko edo herriko bizitza kolektiboan parte-hartze aktibo bat izatea.

(M3)

- *El tema de fiestas y así son casi siempre las mismas personas. Al final se conocen todos, son un grupo de amigos que igual está en el bar y está organizando las fiestas o lo que sea (...) Sí que una vez al año se suele hacer un encuentro, yo el último año no participé pero mi familia sí, un evento multicultural con puestos diferentes: puestos de los rumanos, marroquíes...*
- *¿Y qué te parecen estas iniciativas?*
- *Eso para mí es algo que acerca a la gente a unos y otros. Sí que me gustó que te paras aquí empiezas a hablar con el rumano...intercambias un poco...hace bien.*

(M3) Cuando hay fiestas del pueblo sí que he visto un poco que están más focalizados en lo que hacen siempre, y siempre se olvidan de que ahora hay mucha mas gente en el pueblo, por ejemplo, el día en que hacen comida estaría bien invitar a los de fuera que puedan participar. Sobre todo los que somos musulmanes siempre andamos con el tema de la comida que hay cosas que no se pueden comer...hacer un menú un poco más inclusivo, que haga que la gente se sienta invitada a y se anime.

Beste alde batetik, eta garrantzitsuena, askotan herritar migratzaileek dinamika komunitarioetan duten parte hartzeaz ari gara, orokorrean komunitate batean parte-hartzeko funtsezkoak diren baldintzak bermatuta egongo balira bezala. Egun atzeritarra izate berak pertsonen bizi baldintza materialei eta egoera juridikoari dagokienez dituen inplikazioak gainditzea migratzaile ororen lehentasuna da, eta zentzu honetan, egun herritar askok bizi baldintza duinak lortu ezinean jarraitzen dute. Bistan da, beraz, komunitatea eraikitzea zaila izango dela atzeritartasunarekin lotutako pobreziari eta zapalkuntzei ez bazaie aurre egiten.

(M2) Las personas inmigrantes no viven de cultura, necesitan pan real. La necesidad económica o el querer aprovechar las oportunidades económicas o la ayuda económica del ayuntamiento es el motor. Pero eso es la primera lista. El fenómeno viene de años y normalmente uno se instala y se va a quedar para años. Hay esta primera necesidad que casi todos al principio corren para ella.

(M2) A lo largo de los años, los no nacionalizados son nacionalizados, los que no tenían hijos tienen hijos...entonces están los estabilizados, los que ya han adquirido una seguridad económica, los que han hecho raíces. Luego hay esta última capa, de los más desfavorecidos, los que están en busca de lo que han encontrado los anteriores. Referido a ese núcleo no veo ningún amalgama: "están bien, ya tienen la casa, ya tienen los hijos, van a escuela...van a sus cosas..." Pero no hay algo que digas "qué bien, son dos realidades que han entrado en contacto". No se ha hecho, no se puso sal en la mesa para eso...

(T9) Oso txikia da elkarteetan dauden etorkinen ehunekoa. Prejuizioetatik kanpo, jende gehiena, kanpotik etortzen direnak behar duten lehen gauza lana, eta lan baldintzak ez dira beti egokienak izaten, beraien artean ere gatazkak izaten dituzte...

Honen harira, elkarrizketetan, pertsona batek bere herriko udalak herritar migratzaileei herria hurbiltzeko egiten duen ahalegina balioan jartzen du. Zehazki, iritsi berriak diren herritarrengana gerturatzen da Udala, herrian dauden zerbitzu desberdinak ezagutarazteko, baita akonpainamendu bat eskaintzeko ere.

(M4) El Ayuntamiento, cada vez que hay un grupo de recién llegados, cada cierto tiempo, los reúne a todos, les explica los servicios que hay, les da un poquito de acogida, los llevan por todos los comercios para que vean los comercios que hay, que conozcan los comerciantes...Esto es muy positivo.

Instituzioekin harremantzeko kanalak

Partaidetza prozesuez gain, administrazioak abiatutako komunikazio kanalen eta mekanismoen egokitasuna arakatu da elkarrizketen bidez. Zentzu honetan, herri txikietan bideratu daitekeen komunikazio zuzenaren garrantzia nabarmendu dute pertsona batzuek; hau da, udaleko norbaiti dei bat egin ahal izatea, zinegotzia kalean topatzea edo eskolako irteeran izandako elkarrizketa bat...

(M3)

- *¿Si fueras concejal y quisieras acercar estas iniciativas por ejemplo a la comunidad rumana de Zaldibi qué harías?*
- *Al final te ves en el pueblo en la ikastola, en la plaza... te ves, y en caso de que estes muy interesado en el tema lo llamas y hablamos.*
- *Hablamos de un pueblo en el que si quieres hablar con el concejal o la alcaldesa o te los encuentras por la calle, o tienes su teléfono...*
- *Yo creo que la comunicación directa funciona mejor que la indirecta, porque a la gente le mandas una carta y ni siquiera la lee, y aunque la lea no le das la misma importancia.*

Bestalde, atzerritarren komunitate batzuek sortutako Facebook eta Whatsapp taldeak ere aipatutakoak izan dira. Zentzu honetan, Gipuzkoara iritsi berri den pertsona bati non eta nola ezagutu dituen bere herrian antolatutako jarduerak eta zerbitzuak galdetuta, sare sozialetan sortutako komunitate digital horien bitartez informatu zela erantzun zuen.

3.3.2. Herritar migratzaileak partaidetza prozesuetan. Bizipenak.

Elkarrizketetan parte hartu duten herritar migratzaileen diskurtsoak baliatuz, aurreko atalean euren eguneroko oinarrizko ezaugarri batzuk deskribatu dira, baita komunitatearen bizitzari begira planteatu diren hausnarketa eta egoera batzuk ere. Atal honetan, elkarrizketatuek administrazioak bultzatutako prozesuen inguruan adierazitako iritziak eta jarrerak biltzen dira.

Intereseko gaiak eta partaidetzarekiko prestutasuna

Herritar migratzaileak partaidetza espazioetara hurbiltzeko gakoak eta proposamenak planteatzea da lan honen helburua. Ezinbestez, kolektibo horien interesa nola piztu arakatu behar da, hau da: zeintzuk diren herritar migratzaileak interpelatzeko dituzten gaiak? Herritar kolektibo horiek zein gaitan eta eztabaidetan parte hartzeko prest sentituko dira?

Galdera horiei erantzuteko elkarrizketetan prozesu desberdinetan partaideak izan diren herritar migratzaileen esperientziei erreparatzen diegu. Modu horretan, errelato desberdinek zantzu batzuk ematen dizkigute identifikatzeko pertsona horiek partaideak izan direnean zein prozesu mota eta zein arlotan parte hartzera animatu diren, eta batez ere, zein hausnarketek bultzatu dituzten partaidetza aktibo bat izatera.

Alde batetik, espazio deliberatibo batean partaidea izan den pertsona baten arabera, parte-hartzeko interesak eta motibazioak agertu ziren eguneroko kezkek eta bizitzaren erdigunean duten gaiak lantzea eskatu zitzaionean. Hau da, momentu horretan bere egoera pertsonalean eragina zuen gai baten inguruan lan egitera animatu zen.

(M1) Fue un toque de suerte, porque llegó una carta a casa, la leí y comencé a ver que el tema era muy interesante, porque era un tema que para nosotros los inmigrantes la salud, la depresión, esos bajones que nos da por el hecho que la familia esté en Nicaragua y tu aquí... vi que era un tema muy interesante y me tocaba a mi misma, a mi hogar.

Beste kasu batzuetan, elkarrizketatuek deialdia jasotzean sentitu zuten aitortza azpimarratu dute. Egun instituzioetatik gutxitan herritarren ahotsa kontuan hartzen dela kontuan hartuta, prozesu deliberatibo batera parte hartzeko gonbidapenaren salbuespena azpimarratu zuten. Era berean, zuzenean euren pertsona interpelatzeko zuten deialdi bati erantzun zioten, beraien ezagutza eta prozesuan egingo zuten ekarpena balioan jartzen zela sentitu zutelako.

(M2) Que sea basada en conocimientos de mi persona, y así ya entiendo que me quieren a mí porque soy yo, y que se entienda y respete mi tiempo y esfuerzo de la manera adecuada.

(M3) Sí que participaría, simplemente por el hecho de que te llegue una carta invitándote a participar en algo que te repercute directamente en un tema del pueblo...De hecho, en cuanto me han llamado para hablar contigo en seguida he dicho que sí, y podía inventarme cualquier excusa, pero al ser un tema vinculado con la inmigración que puede hacer un bien para los demás pues he querido participar. (...) (Sobre la participación en procesos vnculados a otros temas) Sí que iría. Pero ya te digo, solamente por la alegría que me daría que cuenten conmigo. Esto de por sí no es poco! Eso no es lo más normal.

(M2) Te lo están diciendo a tí como persona, de por sí es un mensaje de consideración, se dirigen a ti, con nombre y apellidos. (...) Las ganas de participar y la satisfacción de que consideren que yo soy una persona que puedo aportar algo, me hizo superar la dificultad de pensar cuántas horas serían, etc.

Beste aldetik, partaidetza prozesuren batean edo herri ekimen kolektiboetan parte hartu izanaren arrazoiei dagokienez, diskurtso batzuek gizartearekiko atxikimendua eta herriarekiko ardura erdigunean jartzen dituzte. Nolabait pertsona horiek lotura bat sentitzen dute kudeatu beharreko egoerarekin edo proposatutako gaiarekin, eta ekarpen egin dezaketela sentitzen dute; beraz, arduratik eta konpromisotik parte hartzea erabakitzen dute.

(M2) En mi caso, mi sentido de responsabilidad hacia el municipio, el lugar donde vivo, e lugar que me acogió, etc, es un acto de sinceridad por mi parte hacia el lugar, considero que tenía que cumplir un poco con el Ayuntamiento o con Tolosa, esperando que la intención sea verdadera.

(T1) Ziur aski, (partaidetza prozesu ohiko batera) etorriko zaizkizun horiek, espazio zabalago horretara, badaukate nolabaiteko herriarekiko edo beraien egoera sozial edo politikoarekiko atxikimendu minimo bat. Motibazio bat badago harreman bat daukatelako, zer esan daukatelako edo bere ahotsa ikusarazi nahi dutelako.

Azkenik, azpimarratzekoa da jasotako esperientzien artean, kasu batzuetan partaideek ordainsari bat jaso zutela. Nahiz eta partaidetza justifikatzeko beste arrazoi batzuk lehenetsi, prozesua diruz ordainduta izatea, komentatu den kasu guztietan, modu positibo batean baloratu da.

(M2) Es verdad que al ser recompensado económicamente, aun ser un sábado tres horas, el hecho que haya una suma de dinero...en esta sociedad el tiempo es dinero, y las ideas más.

Partaidetza espazioetan izandako zailtasunak

Partaidetza ekimen ofizialetan aritutako herritar migratzaileekin solasaldian prozesuan bertan agertutako zailtasunak identifikatu dira. Kasu honetan, elkarrizketatutako pertsona migratu batzuek deliberazio espazioetan esperientzia dute. Beste batzuek, administrazioaren beste komunikazio gune batzuei egiten diete erreferentzia.

Aipatutakoen artean, hitz egiteko zailtasunak eta prozesu deliberatibo batean aritzeko prestutasuna agertu da. Hau da, ikasketa mailak, lan esparruak eta bizitza ibilbideak orokorrean norberak duen hitz egiteko gaitasuna eta diskurtsoak eraikitzeke erraztasuna baldintzatzen ditu.

(M1) En las mesas tú sabes que no todos tenemos la misma formación, el mismo nivel académico. Yo por ejemplo tengo un bajo nivel académico, y allí la mayoría de las personas eran estudiantes de diferentes carreras universitarias, u otros que ya eran profesionales. Entonces, a un inicio, no fue un problema, pero se nota cuando participa una persona con más preparación cultural. (...) No me resultó conflictivo, yo he asimilado mucho la cultura vasca y de las personas de aquí, y siento que la comunicación no es un problema para mí. Con mis palabras sencillas, normales, lo cotidiano del día a día, la familia... además todos los temas se relacionaban con la familia. Para nada me sentí rechazada, más bien con mucha ayuda, mucho apoyo, había mucho cariño y mucha entrega. No me sentí rechazada, pero desde mi experiencia vi que hay personas muy preparadas intelectualmente y yo me he quedado un poquito atrás”.

Beste alde batetik, Gipuzkoan administrazioetik bultzatutako komunikazioa eta partaidetza ekimenak planteatzeko garaian hizkuntzaren inplikazioak mahaigaineratzeak beharrezkoa da. Are gehiago, partaidetza eta sozializazio espazio informaletan ere hizkuntzak sor ditzakeen pertzepzio negatiboak azaleratzen dira: komunitatetik edo taldetik at sentitzea, bizilagunekiko distantzia, elkar-ulertzeko ezintasuna, etab.

(M6): (...) Imagínate: si se va a juntar un hispanohablante con un ucraniano hablante...creo que la gente entender te va a entender, pero no va a hablar, porque le cuesta. Mientras haya algo que destruya esa barrera lingüística: un traductor que traduzca un poco, una persona que transmita cercanía...

(M3) Hubo un problemilla, que ahora hay bastante gente extranjera en Zaldibia. Muchas veces la gente se quejaba de que las comunicaciones siempre llegaban en euskera. En Zaldibia con el tema del euskera son muy exigentes, entonces la gente que venía de fuera se quejaba de eso, de que cuando hay eventos a la gente le llega en euskera no les hacen ni caso porque no lo entienden...entonces después preguntan ¿"por qué no?" "pues porque no nos has avisado, o no nos hemos enterado o no lo hemos entendido...". Sí que es verdad que algún esfuercillo sí que han hecho a la hora de traducir...

(M3) Por ejemplo en la escuela hay reunión de padres. La gente iba, pasaba el tiempo, no se enteraba de nada y se iba. Entonces tampoco no participan, no saben de qué va el tema, e incluso con el tiempo la gente ha dejado de ir. ¿Para qué vamos a ir si no vamos a entender? Sí que últimamente han hecho lo del aparato que traduce, y eso sí que es verdad que ha sido una mejora en este sentido. Que eso tampoco exime que la gente tiene que aprender.

4. INKLUSIORAKO GAKOAK ETA NORABIDE ZEHATZAK

Orain arte, herri partaidetzaren prisma, herritar migratzaileen eta adineko emakumeen hainbat norbanakoren bizipenak eta gogoetak deskribatu dira, baita Gipuzkoako herri partaidetzaren eremuan lan egiten duten profesionalen pertzepzioak aztertu dira ere. Segidan, ondorio gisa, Gipuzkoako administrazioek bultzatutako herri partaidetzak inklusiboagoa eraikitzeko hartu beharreko hainbat gako eta norabide aurkezten dira. Zehazki, administrazio publikoak bultzatutako partaidetzaren planteamendu orokorrean kontuan hartu beharreko aldaketa batzuk planteatzen dira, partaidetza mekanismo eta forma horiek hurbiltzeko, eta orain arte gutxiago parte hartzen duten kolektibo batzuen presentzia bermatzeko.

4.1. GAKOAK

❖ **Begirada estrategikoa eta integratzailea. Herritarren ahotsa agendan eta diseinuan**

Herritarrekin bultzatutako lankidetzaren erabaki estrategikoetatik hasi behar da; hau da, erakundearen ekintzaren inguruan herritarrei *galdetzetik*, beraiekin batera *sortzera* joatea.

Herri partaidetza instituzionalaren eremuan landutako gaiak herritarren bizitzetan eragin zuzena eduki ezean, oso zaila izango da konexio eraginkorrak eraikitzea. Beraz, testuinguru bakoitzean, errealitatean sakonduta, eta eragile eta norbanako zehatzei egokituta, "elkarrekin egitearen" ideia prozesuaren diseinutik txertatu behar da.

(T9) Ikusi izan ditudan prozesuetan, gehienetan, gure beharretatik, politika publikoa egitearen beharretatik abiatzen gara, eta aurrekari guztiak normalean ahazten ditugu. Kanpotik etorri den horrek lurretik botatzen dizkizu zure proposamen guztiak aurrekari guzti horiek ahaztuta dituzulako. Beraiek ez dira kontuan hartu behar, ez: beraiek barne daude, ez da barne edo kontutan izan behar dituzula, baizik eta barne daudela. Entzuteko prest egon behar dugu eta gure islada itsusi hori onartzeko hori barneratzeko gai izan beharko ginatke.

(T9) Nahiz eta askotan politika publikoak eurentzat egin, ez gara inklusiboak izaten. Kanpokoa norbaitentzat egiten ditugun gauzak dira, baina erakundeak berez inklusiboak izan beharko luke. (...) Parte-hartze prozesu batzuen -gaiaren arabera eta bilatzen duzun horren arabera- diseinuan, diseinu bateratu bat egin dezakezu. Jakin agendan zer sartu nahi duten (hartzaileek), zein etortzea nahi duten, etab. Azkenenean parte-hartzearen diseinua bera botere ekintza bat da. Orduan, hori partekatzeko aukera baldin badago, egokia izan zitekeen."

(T6) Emakumeak exkluitzen dituzten mekanismoak beste batzuk dira. Ez da bakarrik emakumeek parte hartzen dutela entzule moduan, baizik eta eurek dakitenak ez duela baliorik (...) Zertan dauden emakumeak? Gizartean zertan gaude emakumeak? Emakumeak gaude gizartean zaintzen orokorrean: administrazio publikoan, osakidetzan, hezkuntzan...zer dago maskulinizatuta, eta zer feminizatuta? (...) Ez da bakarrik izenburu bat jartzea "emakumeak etorri", baizik eta gure politika bizitza sostengatzeko politiketatik egiten badugu emakume gehiago etorriko dira.

❖ Entzuketa, legitimazioa eta ahalduntzea

Partaidetza prozesuetan presentzia txikiagoa duten kolektiboak erakartzeko prozesuak diseinutik exekuziora herritarren beharrekin zein interesekin lerrokatzea beharrezkoa izango da. Orain arte helburua herritarrak administrazioaren unibertsoan gertatzen diren elkarrizketetara eta eztabaidetara hurbiltzea izan bada, orain beste aurrerapauso bat eman behar dela antzematen da. Hau da, ekintza instituzionalak herritar kolektibo guztien unibertsoak barneratu behar ditu, bertan aurki daitezkeen kezka eta planteamenduak ere bere egiteko.

Ekintza instituzionalak herritar kolektibo guztien unibertsoak barneratu ahal izateko bitartekoak jarri behar ditu, eta horietan eman daitezkeen elkarrizketak eta ekarpenak legitimatu. Entzuketa prozesu aktiboak behar dira, herritarrek eta kolektibo zehatzek dituzten kezka, erronka eta beharrak identifikatzeko, baita herritarrak gertu eta bere sentitzen dituen eztabaidak sumatu eta erdigunean jartzeko ere.

(T1) Datorrena datorrela, sortu behar dugu testuingurua aukera izateko gure herriko alkatea izatera iristeko. Denok gara herritarrak eta aukera bat izan beharko litzateke.

(T8) Gure lana da transmititzea hemen partaidetza eskubidea dela, hori transmititu behar da. Agian ez duzulako ahotsa eduki ezta zure herrian: umea zinelako, edo agian zatoz kultura batetik edo inguru batetik non ez duzun inoiz ahotsa eduki, anai txikia zinelako edo auskalo...lehenengo urratsa da erakustea hemen kultura parte-hartzaile bat dagoela eta nahi dugu sinisten dugulako horretan, nahi dugu gizarte bat bere ahotsarekin.

(E4) Azkenean antolatzen dituzte gauzak helduentzako, hau eta bestea, baina azkenean ez dugu guk antolatu. Azkenean antolatu egin digute, eta ez dakit guk nahi dugun hori. Igual gurekin ez dihoa ezer. Heldua izateagatik, ez duzu ezertaz mugatua egotea, nik badut mendira joatea edo badut egitea hau edo hau...inork ez dit mugatu behar eta esan "zuk ezin duzu hori egin", baina hori oraindik hor dago, eta guk ez ditugu antolatzen gauzak. Adibidez hemen auzoan saiakera egin dut lehen gure seme-alabentzako antolatzen genituen gauzak, pertsona horiekin antolatzea, gure gauzak antolatzeko. Orain arte arduratu gara gure seme-alabentzat gauzak antolatzen, orain gure gauzak antolatuko ditugu, eta hori da nire gogoia eta nire ilusioa, guk antolatzea guk nahi ditugun gauzak.

Beste aldetik, administrazioaren gerturatze prozesuan, bakoitzak dakarren edo eskatzen duen hori erakundeetara eramateko moduak izan behar du integratua. Hau da, gai jakin batez hitz egitera joan, eta beste gai bat topatzen denean, bigarren gai hori erakundean nola eta non landu kokatu eta bideratu behar da, ez soilik erakundetik gerturatu.

(T7) Prest egon behar dugu entzuteko besteok, eta denetarik entzuteko. Batzuetan subjektu horiek legitimizatzen ditugu uste dugulako diskurtso bat ekarriko digutela: "hau aukeratzen dut zeren eta gainera ekarriko dit la realidad de las mujeres africanas..." Ez. Agian beste gauza bat ekartzen digu, eta agian da dena apurtzen digun ideia bat.

(T9) Entzutearena maiz aipatzen da, baina oso gauza zaila izaten da. Entzun, eta entzun duzun horrekin, nahiz eta gustatu ez izan, zer egiten duzu? Ardura hori hartu beharko zenuke.

❖ Deialdien norabidea irauli: etorri-tik joan-era jauzi egin

Partaidetza prozesuetan eragile eta herritar desberdinekin elkarrizketa erreal bat sortzeko garaian, erosotasun eta gertutasunetik lan egitea beharrezkoa da. Honetan, erronka herritarrak dauden berezko lekuetara iristea izango da, pertsonak eroso eta haien lekuan sentitzen diren lekuak alegia.

Pertsonak eta errealtate zehatzak erdigunean jartzen direnean, lankidetzak zentzua hartzen du: herritarrak ondo kokatzen dira, interesa dute, nahi dute, eta parte bihurtzen dira. Aldiz, herritarrak erakundearen eskemara etortzera behartzen ditugunean zailtasunak dituzte kokatzeko, euren ekarpenaren inguruko zalantzak pizten zaizkie, eta ez dute prozesuarekin atxikimendua sortzen. Ekintza isolatuak gisan geratzeko arrisku handia dute. Beraz, gonbidapen irekien bidez herritarrak erakartzea aukera bat da, herritar profil batzuentzat eroso eta egokia izan daitekeena, baina osatu behar da, hau da, proiektu bakoitzeko ireki daitezkeen ate berriak eta anitzak arakatu behar dira herritarrengana hurbiltzeko.

(M4) Es como ir a una fiesta: si no conoces a nadie no vas directamente a bailar con todo el mundo para que te tilden de loco y digan "¿este quién es? No lo conocemos", esta primera noche te la vas a pasar en una esquina, si vas a la fiesta, porque por muchas ganas que tengas de conocer a gente no conoces a nadie, están todos con sus grupos y sus cuadrillas...alguien te tiene que sacar a bailar. Y aquí hay que ver el papel que juega el Ayuntamiento. Están aquí, han venido, ¿cómo podemos llegar a ellos? Pues igual hay que tocarles la puerta, "somos del Ayuntamiento, sabemos que estáis aquí, tienes la puerta abierta y te queremos invitar tal día, tal hora tal lugar y te vamos a explicar esto". Este sería un primer pasito.

❖ Berezko "egitura sozialetara" ere hurbildu

Aurreko puntuan herritarrak erakartzetik herritarrengana hurbiltzera pasatzeko beharra azpimarratuta, hurbiltze prozesu horretan berezko lekuetara jotzea gakoa da. Norekin kontaktu nahi dugu? Nor da? Nola antolatzen du bere denbora? Zeintzuk dira bere partaidetza eta sozializazio esparruak? Hauek ezinbesteko galderak dira berezko guneak identifikatzeko.

Honen harira, herritar kolektiboek sortutako elkarteak eta sozializazio esparru formalak ate bat izan daitezke komunikazio kanal ohikoen bidez agertzen ez diren herritar horiengana iristeko. Sozializazio esparru hauek izaera desberdinetako elkarte edo guneak izan daitezke: aisialdiarekin lotutako elkarteak edo topaguneak, auzo elkarteak, jatorrizko komunitateari lotutakoak, herri mugimenduak...

(T9) Elkarte sare zabala daukagu guk, etorkinei deitzen zaienean elkarteen bitartez egiten ditugu deialdiak.(...) Kanpoko jendea etorri izan zaigu, baina betiere elkarteen bitartez (...) Beraien harreman sare naturala izaten dira elkarteak

(T2) Administrazio moderno horiek martxan jartzen ari garenetik, adin tarte horretako emakume askori oso arrotza egiten zaie udaletxera etortzea, beraietzako zenbait enkargu egitea oso premiazkoa da, eta aldiz Emakumeen Etxera joaten dira errazago egiten zaielako eta gertuagoko harremana sentitzen dutelako. Deitzen zaienean Emakumeen Etxetik edo Udaletxetik, baloratuagoak sentitzen dira Emakumeen Etxearen inguruan egiten diren gauza horietan, Udaletxean egiten direnetan baino

Hala ere, elkarteak eta sozializazio esparru formalak baliatzeak bere abantailak eta desabantailak ditu. Nahiz eta zubi-lana egin, elkarteek ez dituzte komunitateak guztiz ordezkatzeko. Ondorioz, interlokutore bakar bezala ulertzen baditugu, norbanako asko prozesutik kanpo gelditu daitezke.

Edonola ere, elkarteak eta sozializazio gune formalak aliatuak izan daitezke partaidetza bermatzeko momentuan.

❖ **Gune zainduak, harreman zainduak**

Ikuspegi zehatzak eta zuzenak txertatzea partaidetza sistemaren egungo erronka nagusietako bat da. Horretarako, gerturatze nora beharrezkoa da, denbora gehiagorekin, mantsoago, eta herritarra kontuan izanda, eta beretik gerturatu dadila ulertuta. Era berean, prozesuan pertsona bakoitzak *nor* izan behar du taldearen parte bihurtzeko. *Nor* izateko, lehenik, bere berdinekin aritu behar du, konfiantza espazioan, eta gertutasunarekin. Laburbilduz: denboraz, patxadaz eta singularitatez aritu behar dugu partaidetza prozesuetan sustraiak sortzeko.

(M1): Fue estupendo, porque al principio al primer día estábamos perdidos porque había muchísima información y no sabíamos a donde íbamos con tantísima información. Además, no nos conocíamos, yo no conocía nadie. (...) No conocer la gente limita mucho, pero también como me gusta hablar, hablé un poquito el primer día que nos conocimos, y lo bueno es que las chicas tenían preparadas muchas dinámicas y había momentos en que hacíamos las dinámicas y nos motivaban para que saliera el objetivo de la asamblea. Y así fue, el segundo sábado íbamos cayendo un poquito en la realidad, y así fue hasta que terminamos el periodo.

(E2) Ez da iristen, edota behar da baita ere, deialditara joateko, akonpainamendu bat, sentitu zure ingurukoekin bat izatea. Nire inguruko bi edo hiru joango bagina, ez nuke izango arazorik.

(E1): Igual contigo no me pongo muy nerviosa, pero contra más gente... no creas ¿eh? No me salen las palabras, contra 32 y gente del ayuntamiento, y expertos... Y luego había que hablaban con el micrófono, y eso ya, sí no estás acostumbrada...yo igual con una, con dos, con tres...pues bueno, no me corto.

Testuinguru honetan, aniztasuna kontuan hartzeak zaugarritasunari lekua egitea dakar. Herritar kolektibo desberdinetan topatuko dugun zaugarritasuna bistaratu, zaindu eta erdigunean ere jartzean dago gako bat.

Prozesuaren hasieratik bukaerara konexio eraginkorrak eta egonkorak eraikitzeke garaian, harremanak zaintzea ezinbesteko neurria da, hau da: kalera atera eta jendea dagoen lekuetara hurbildu, azaldu, entzun, lagundu eta harremanak goxatu.

(E4) Finkatu behar duzu espazio propio bat indartzeko, gero irekiagoa izateko. Ez naiz isten eta uste dut anitzagoa izan behar dela, irekiagoa izan behar da. Ez dut ikusten gizartea izan behar dela "hemen gazteak", "hemen emakumeak", "hemen gizonak", uste dut anitzagoak izan behar garela eta espazioak sortu non denok elkartzen garen. Zuk duzu zure espazioa non indarra hartzen duzun, eta horrek ematen dizu aukera gero besteekin elkartzeko.

(T5) Hablo de un proceso participativo con un grupo mujeres de entre 65 y 89, en el que aparece un hombre, el primer día se cae, y luego ha sido un grupo exclusivamente de mujeres. Vinieron tecnológicamente pequeñitas diciendo "yo qué puedo aportar, si yo no tengo ni idea...", pero luego ha sido super bonito ver cómo han crecido ellas en sus reflexiones, de cómo llegar pequeñitas a salir, por las conversaciones que se han dado, con un criterio. (...) El día de la devolución, vas a ese mismo grupo y aparece un hombre, y resulta que se pierde la magia del grupo. Ese poder todavía existe en esos grupos, y al final te hace pensar que a lo mejor, para determinados rangos de edad tenemos que hacer grupos de chicas

(E1)

- ¿Y con los otros participantes entablaste relación?
- Sí, con alguno sí...sobre todo con los de mi edad, parece que ...había una de mi edad también y solíamos ponernos juntas y así, y en muchos casos coincidíamos.
- ¿crees que tu punto de vista coincidía con la gente de tu edad?
- Sí, con la gente de mi edad. Lo de la arquitectura y no se qué de los servicios, en vez de dos servicios, poner tres: "él" "ella" "ele". Esas cosas...decíamos ¿qué...?

(E1):

- *La juventud es distinto y en la asamblea para mí se notaba, igual por otros no. En la forma de hablar, sobre todo, que la mayoría tiene estudios, claro.*
- *¿Y entre hombre y mujeres había diferencia por ejemplo?*
- *En la asamblea traté mucho más con mujeres, y mira que no nos conocíamos. Una me llevaba en coche. (...) Entre mujeres más cómoda.*

❖ **Komunikazioa egokituta, indibidualizatuta eta hurbiletik**

Deialdi generiko eta orokorretan oinarritzen diren prozesu eta proiektuak gainditu behar dira, komunikazio kanal indibidualizatu eta egokituera pasatzeko. Herritar kolektibo desberdinak deitzea momentuan, haiengan iristeko erabilitako estrategiak eta mekanismoak egokitzea oso garrantzitsua da. Lan honetan bildutako esperientzia desberdinek agerian uzten dute komunikazio prozesu guztiek "sukalde lana" beharko dutela. Nori zuzendu nahi diogu mezua? Nola? Nondik egingo dugu?

Testuinguru honetan interpelazio zuzena, hurbiletik, eta mezuei dimentsio indibidual bat ematea gero eta garrantzitsuagoa da. Norabide honetan aurrez aurreko elkarrizketak eta telefono dei indibidualak aurki ditzakegu, baita izen eta abizenekin zuzendutako gutunak ere.

(E2) Niri oso desberdina iruditzen zait deialdi irekia: "ala, partizipatu, etorri eta esan..." edota esatea "perfil bat behar dugu eta perfil horrekin egingo dugu: bat, bestea eta bestea", eta horrela perfil desberdinak elkartu. Deialdi zehatzak, pertsonalak, edo sesgoak askoz interesgarriagoak dira denontzako deialdi irekiak baino.

(T7) Hizkuntzaren ikuspegitik modalizatu egin behar da: mezu bera ezin duzu denei modu berean kontatu. Plastilina bezala, mezua manipulatu behar da, zentzu onean. Eta kanalarekin asmatu, hori lana da

(T11) Parte hartzeko egon behar da emailak bidatzen eta deitu egin behar zaie aldiro. Oso gainean egon, behin baino gehiagotan, (...) Gainean egon behar da eta sukalde lan hori ere egin

(T7) Harreman hurbilean sortzen da informazio honen manejoa. Iritsi naizenean beraien intereseko gai bat zein den jakitera, harreman hurbilean gertatu da, kafe bat hartzen, ez kontseilu batean.

❖ **Pertsona aliatuak eta konplizeak bilatu**

Lankidetzaren indartzeko aliantzak sortzea ezinbestekoa da. Askotan, eragile edo herritar zehatz batzuekin konektatzea errazagoa da; modu aktibo batean parte hartzen dutelako izan, edo euren komunitateak erreferenteak direlako izan, konexio hauek baliagarriak izan daitezke prozesu batean sortutako harreman sarea lantzeko. Zentzu honetan, norbanako hauekin aitortza eta konplizitate lan egiteak prozesua erraztu dezake.

Herritar talde kolektibo batzuentzat, erreferenteak izan daitezkeen norbanako figurak elkarrekin eta sozializazio espazio formaletan aurkitu ditzakegu. Kasu honetan, erlijio-liderrak edo elkarrekin militante aktiboak izan daitezke. Aldi berean, herrian bizitzen ibilbide luzea duten pertsonen aliatu-rola ere jokatu dezakete. Izan ere, pertsona horiek hemengo sistema publikoaren inguruko ezagutza handiagoa dutenez, errazagoa izan daiteke administrazioetik bideratutako komunikazioa. Beste alde batetik, pertsona hauek konfiantza eta gertutasuna ekar dezakete prozesura, partaide berriekin zubi-lana eginez.

(T7) Gero dago parte bat informalagoa dena, pertsona aliatuagoak. Horiekin badaukagu beste harreman mota bat: askoz informalagoa, telefonikoagoa, aurkitzen ditugu kalean, emaila badaukagu... Badakigu pertsona erreferente naturalak edo lider naturalak direla, mobilizatzeko ahalmena dutenak, beraien ahoz ahokoan edo haiek mugitzen diren inguruetan informazioa pasako dutena...eta hautatu egiten duzu gaiaren arabera, pertsona profilaren arabera, mugitzen den espazioaren arabera, jardueraren arabera, hautaketa bat egiten duzu

(M6): Y en las iglesias disponemos de curas ucranianos, los que dan la misa son ucranianos. Hay en Irún y en Donosti otro que viene de Pamplona. No estoy segura de cómo, pero hay sí que hay una forma de contactar con ellos, y ellos en la misa muchas veces pueden mencionar cosas. A mi eso me parece una buena manera. Si el ayuntamiento quiere comunicar algo, no sólo mediante carteles y tal, si se necesita contactar directamente con el cura y decirle que en el ayuntamiento hacen tal cosa para gente que ha legado recientemente.

(M3) Yo siempre he tenido ganas de hablar con el alcalde o lo que sea. Yo haría como un portavoz. Para hacer llegar el mensaje. Creo que deberían dar esta idea a los ayuntamientos, tener una persona para que haga de intermediario.

(T8) Nire esperientziatik klabea beti izan da eskutik helduta joatea eta "etorri nirekin" , orduan behar duzu konfiantza hori pertsona hori zurekin joateko.

Adineko emakumeen kasuan, konfiantzazko pertsonen konplizitatea bilatzeak euren presentzia erraztu dezake; hau da, prozesu politikoek emakume helduengan transmititu dezaketan arrotasuna eta urruntasuna apurtzeko, haietara konfiantza sortzen dien pertsona baten eskutik iritsi daitezke.

(T5) En nuestra experiencia, las jóvenes se acercan a modo propio, pero las mayores se acercan a través de que alguien de confianza de su entorno les ha animado para ello. Entonces, el buscar esta complicidad con alguien, sea la técnica de ocio activo del barrio, se la de la liburutegi...hay que buscar ahí, o a nosotras lo que nos ha servido es buscar complicidades de gente confianza de las mujeres más mayores, que van a ciegas. No saben si van a una dinámica de A o a un encuentro de B, pero como se lo ha dicho fulanita y confían en ella van, y luego se entregan".

Hala ere, pertsona erreferente zehatzak baliatzea herritarrak erakartzeko bere arriskuak ditu. Konexio prozesuak errazten dituzten arren, kontuan hartu behar dira pertsona erreferente hauek herritar talde zehatz bat ordezkatu dezaketela. Talde hori osatzen duten pertsonak eta, batez ere, talde horretatik kanpo gelditzen direnak ondo zehaztu beharko dira.

(T7) Ordezkaritzekin kontuz ibili. Pentsatzen dugu baten ahotsak ordezkatzeko duela kolektibo hori. Nik inbentatzen dut nire begietatik ze kolektibo den, elkartearen izenagatik, pertsonaren idiosinkrasiagatik...eta horrela pentsatzen dut ahotsa ordezkatzeko dagoela.

Azkenik, instituzio barruan aliantza batzuk sortzeak ere prozesua eraginkorragoa izatea ekar dezake. Udal mailan sail edo zerbitzu zehatz batzuek intereseko kolektiboekin lan egiteko eskarmentua izan dezakete, eta dagoeneko herritarrekin harreman finkoak sortuta izatea. Horregatik, herritarrengana hurbildu eta beraiekin lan egiteko momentuan, komenigarria da udal mailan modu integratu batean lan egiteko dinamikak finkatzea eta egituratzea, hau da, eremu desberdinetan eta askotan modu atomizatuan bildutako ezagutza eta esperientzia bateratzea eta baliatzea.

❖ Funtzionamendua egokitu

Herritarrek arazoak eta erronkak modu integralean ulertzen dituzte, baina administrazio publikoak zatikatuta kudeatzen ditu. Barrura begira, administrazioak proiektuak lankidetzari handiagoarekin kudeatu behar ditu, eta proiektuetan sail ezberdinen begirada eta egitekoa integratu behar dira.

(T8) Diseinatu beharko lirateke politika guztiak ikuspegi horretatik: ahotsa emateko eta hiritar izateko ikuspegi horretatik. Bakoitzak gizarteari eskainiko dio bera mailan, bere neurrian, bere borondatez, bere nahiez, bere ahalmenez eskaini diezaiokeena. Baina denek zerbait eskaini diezaioke. Horrek eskatzen du gu denok, erakunde desberdinok, norantza edo klabe berdinean joatea (...) Oso ohituta gaude aritzen bakoitza bere aulkitik, edo logika departamental batetik egiten gauzak, eta horrek beste paradigma berri bat eskatzen du."

Herritarrekin konektatzeko erakunde publikoen eskemak apurtzeaz ari garenean, barne egiturak eta lan egiteko moduak eraldatzeaz ere ari gara, batez ere, politikarien eta teknikarien rola definitzen, gaurkotzen eta birpentsatzen.

4.2. NORABIDE ZEHATZAK: LABURPEN TAULA

	OROKORRAK	HERRITAR MIGRATZAILEAK	ADINEKO EMAKUMEAK
Partaidetza ekosistema sortu	Elkargune publikoak (liburutegiak, gizarte etxeak, kiroldegiak...) zaindu eta parte-hartzerako espazio informalak bermatu, autogestiorako ekimenak indartu	Partaidetza sistema ezagutaraztea Egitura sozialak ezagutaraztea	Partaidetza sozial eta politikoan ahalduzko espazio propioak: aisialdi autogestionaturako aukerak, boluntariotza proiektuak...espazio horien sendotasunak lagunduko digu beste partaidetzarako prest egongo diren subjektuak izaten.
Deialdiak	Pertsona aliatuengana jo	Komunitatearen erreferenteen konplizitatea bilatu: elkarteetako arduradunak, erlijio erreferenteak, pertsona liderrak...	Konfiantzako figurak aktibatzea: emakumeen etxeko teknikaria, zahar etxeko hezitzailea, haien aisialdi ekintzetako begiralea...
	Sozializazio espazioetara hurbildu	Berezko instituzioetara hurbildu: komunitateen elkarteak, kultu-espazioak, elkargune eta aisialdi espazio informalak...	
		Herriko edo auzoko bizitza kolektiboarekin konexio guneak izan daitezke espazioak bilatu: eskola, plazak eta parkeak...	
	Interpelazio zuzena eta indibidualizatuta	Telefono deiak, aurrez -aurreko espazioak baliatzea Izen-abizenekin zuzendutako komunikazioa	
Partaidetzarako espazio aproposak sortu	Konfiantzako espazioak: berdinek edo gertukoek osatutako taldeekin lan egin, eta taldeen dimentsioak neurtu.		Espazio ez-mistoak eta adin taldeak sortzea kontuan hartu.
	Gertuko espazioak erabili: herritarrek ezagutzen dituzten edo sarritan erabiltzen dituzten espazioetara eraman prozesua		Nagusien egotzetara, emakumeen etxeetara, aisialdi ekintzetara...
	Aurrez aurrekoa eta harreman zuzenak baliatzea: espazio digitalen egokitasuna neurtu		
Mezuak egokitu	Administrazioaren lengoia albo batean utzi: diskurtsoak eta lengoia herritar arrunten behar, ezagutza eta erabilera mailara egokitu.	Hizkuntzaren inplikazioak kontuan hartu	
Emaitzekiko konpromisua eta gardentasuna	Herritarrek egindako ekarpena eta eskainitako denbora aitortu. Balio dezatela erabakiak hartzeko, eta ikusarazi dadila hori. Emaitza erakutsi eta horretan guztion ekarpena kokatu.		